



Herriko bestak

Elbete, Eratsun, Oitz eta Sara

IGANTZI → 15
XIX. Mendi Bizikleta
ibilaldia igandean

ZUBIETA → 21
Mindegia omenaldia
irailaren 12an

LEITZA → 27
Nafarroako I. Talo
Txapelketa igandean

IZPEGI → 30
Baigorri eta Baztango
txalapartarien besta

Kostearen erdia doi-doia

Litro bat esne ekoizteak 0,36-0,41 euroko gastua sortzen die, eta baserritarrek 0,28 euro kobratzen dute. Gainera, esnearen kontsumoa jautsi egin da, kanpotik esne aunitz ekartzen da, saltoki handiek marka txuri gisa darabilte eta Europako Batasunak kuotak kendu nahi ditu 2015ean. Panorama beltza baserriko profesionalentzat.

ELKARRIZKETA → 3



ERREPORTAJEA → 4-5

**Familian,
Zugarramurdira
etorriak euskara
ikastera**

Familian eta giro onean euskara praktikatzera etorriak, abuztuan bi astez egon dira 19 guraso eta 20 seme-alaba. Gehienak arabarrak izan arren, baziren Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroatik etorriak ere. Zugarramurdirin lehen urtea izan arren, duela 10 urte hasi zen AEK holako ekimenak antolatzen.



KIROLA → 39

**Zazpi Herrialdeetako
Herri Kirol Txapelketa**

Donezteben jokatu
da irailaren 12an
17:00etatik aitzinera.

ZOZKETA → 37



Isidoro Fagoaga

BERAKO UDAL MUSIKA ESKOLA

Zorionak!
30. urteurrena



AURREMATRIKULA:
Irailaren 1etik 11ra

BULEGO ORDUTEGIA:
9:30-13:00

Gehiago pentsatu gabe, animatu zaitzez gustoko duzun instrumentuaz gozatzera irailaren 9an kontzertu pedagogikoa 18:30ean Musika Eskolako Areto Nagusian. Instrumentuak probatzeko aukera izanen da.

www.berakoudala.net/udala/instalazioak/musikaeskola
Legia, 26 • Bera • Tel.-Fax: 948 631 205 • musikaeskola@berakoudala.net

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,32€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko bxekea; 4) www.ttipi.net bitartez



AHIELEN IRAZOKI EZKURRA sunbildarrak 2 urte beteko ditu irailaren 2an. Zorionak familiaren guziaren partetik eta bereziki zure anaia Omarren partetik.



JARE UBIRIA IRIONDO. Amatxi Juaniren partetik zorionak eta muxo haundi bat..



Gure JARE sorginari bere lehen urtebetetzean zorionak eta orain bezain alai eta pixpireta segi dezala Lesakako familia eta izaba Aitziberren partetik.



Sunbilla OIERREK irailaren 16an 5 urte beteko ditu. Zorionak zure lagunaren eta zure amabixoren lagun partetik muxo haundi bat. Ongi pasa eguna eta berendu goxo-goxoa prestatu denentzat.



OIERREK irailaren 16an 5 urte beteko ditu. Zorionak Gerendiain, Lekunberri eta Sunbilla familiaren eta bereziki gurasoen partetik. Muxu potolo bat sorgintxo.



MAIANEK irailaren 12an bere lehen urtea du. Zorionak Sunbilla familiaren eta bereziki gurasoen partetik. Muxu potolo bat sorgintxo.



NAHIKARI GOIKOETXEA URROZ eta MADDALEN IRAZOKI URROZ abuztuaren 5ean eta 27an 4 urte eta urtea bete dituzte. Zorionak gure bitxitoei familia guziaren partetik.



JUNE SALGADO SOLO lesakarrak urtea beteko du irailaren 4an. Zorionak bitxoatta, ama, amatxi eta bereziki Ekiñeren partetik. Muxu bat.



MIKEL INDABURU LOIDI etxalartarrak irailaren 17an 8 urte beteko ditu. Zorionak familiaren guziaren partetik eta bereziki Eider arrebaren partetik.



Zozaiako AMETS AGIRRE SARRATEAK abuztuaren 28an urtea egin du. Zorionak eta muxo haundi bat familia eta bereziki arreba Lorearen partetik.



AINHIZE GARRO LASHERAS lesakarrak 4 urte beteko ditu irailaren 17an. Zorionak eta muxo haundi bat familia guziaren partetik.



EURNE SANCHEZ RAMOSEK 2 urte bete ditu irailaren 5ean. Zorionak eta muxo haundi bat Sunbilla eta Irungo familiaren partetik.



EURNE SANCHEZ RAMOSEK 2 urte beteko ditu irailaren 5ean. Zorionak eta muxo bat amabitxi Marisol eta lehengusu Oihanen partetik.



MALEN FAGOAGA Izak 3 urte beteko ditu irailaren 8an. Zorionak Aiora ahizpa Eider eta Izaro lehengusinak eta familiaren partetik.



OIER eta BENAT ERRO MUJIKA elizondarrek 7 urte bete dituzte irailaren 5ean. Auniz urtez aita, ama eta familia guziaren partetik. Ongi pasa eguna politetik. Zorionak.



LEXURI ARATZENA PORTU lesakarrak 3 urte beteko ditu irailaren 15ean. Zorionak familiaren eta bereziki Orti anaiaren partetik.

Urtebetetze-agurrak aldizkarian, telebistan eta interneten agertzen dira. Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

Nekazaritza sektorea ere krisian dago, eta aspalditik, gainera. Litro bat esne ekoizteak 0,36-0,41 euroko kostea eragiten die baina 0,28 euro kobratzen dute.

Arrazoi andana dago krisiaren gibelean: kontsumoa jaitsi da, kanpotik esne aunitz ekartzen da, saltoki haundiek marka zuri gisa darabilte esnea, duela 30 urteko pre-

zioek segitzen dute... Gainera, Europako Batasunak esnearen kuotak kendu nahi ditu eta hala, hemengo nekazariak kalte-
tuak izanen direla uste du aunitzek.

Mariado ITURRALDE | Donamariako EHNEko nekazaria

«Aguantatzen ari gara, baina edozein momentutan ezin izanen dugu segitu»

TTIPI-TTAPA | DONAMARIA

Noiztik dago krisian nekazaritza?

Bertze sektoretan krisia furi-furian orain dagoela erraten da, baina nekazariak aspalditik gaude krisian. Prezio baxuengatik betidanik egon dira sindikatuak borrokan, baina orain erabat okertu da egoera.

Zein da zuen egoera?

Arrunt gaizki gaude. Prezioak hagitz baxuak dira eta kostea altuagoa da. Kostearen azpitik entregatzen dugu esnea, eta bide horretan, ordainketak eten beharko ditugu eta ixteko momentua ere ailega daiteke.

Noiz arte iraun dezake egoera honek?

Aguantatzen ari gara, baina edozein momentutan, ezin izanen dugu segitu. Nekazariak horregatik gaude kezkatuak eta haserre. Arrunt gutti ordaintzen digute eta zein prezioan saltzen zaie kontsumitzaileei?

Europar Batasunak esne kuotak kendu egin nahi ditu 2015ean...

Kuotak mantentzearen aldekoa da EHNE. 2015era arte kuotak goiti joanen dira, eta 2015ean merkatuaren liberalizazioarekin, oraindik esne gehiago ekariko da kanpotik. Kuotak kenduta, Alemania eta Frantzia bezalako estatuek esne aunitz aterako dute eta merkatuan esne aunitz izanik, prezioek be-



Mariado Iturralde, bere behitegian.

TTIPI-TTAPA

hera egingen dute.

Zer dio Administrazioak?

Uztailean Esneari buruzko Akordio Nazionala sinatu zen Madrilan, baina EHNEk ez zuen sinatu. Estatu espainiarreko nekazariei ordaintzerakoan Frantziako prezioak hartu nahi dira kontuan, baina Frantziar merkeago produzitzen da eta kostearen azpitik jasotzeko sinatzeak ez du zentzurik. Bataz bertzeko bat paratu nahi da Espainian, eta hala, nekazari guztiek ez lukete berdin jasoko.

NEKAZARI PROFESIONALAK

«Garbi utzi nahi dut nekazari profesionalak garela, honetatik bizi garela. Nekazaritzatik zenbakiak ez bazaizkizu ateratzen, kanpoan bertze lan bat bilatzeko errateak ez dit balio. Gure lana nekazaritza da»

Kaltetua nekazaria...

Arrazoi aunitz daude. Batetik, kanpotik esne aunitz heldu delako hemengo kostearen azpitik, eta hori kontrolatu beharko luke Administrazioak. Horrekin batera, kuotak mantendu beharko lituzke, eta sistema bat paratu beharko luke litro bat esne ekoiztea zenbat kostatzen den kalkulatzeko eta industria eta banatzaileen neurrigabeko irabaziak kontrolatzeko. Gainera, EHNErentzat kontsumitzaileari informazioa ematea ezinbertzekoa da.

Kontsumitzaileak jakin dezala esnea non produzitu den, zein osagai dituen, non enpakatu den, nekazariei zenbat pagatu zaien... Industriari guri gehiago ordaintzeko eskatuko nioke, guk ere zerbait irabazi behar dugu. Saltoki haundiak ere badute errua. Esnea gantxo bezala erabiltzen dute jendea erakartzeko, marka zuria ekoizpen kostearen azpitik salduz, eta horrekin ezin dugu lehiatu.

Baduzue itxaropenik?

Ez da inoiz galdu behar. Mobilizazio haundiak egin dira eta horretan segituko dugu. Itxi aitzinetik zerbait egin beharko dugu, eta gaizki daudenei babesa eman. Exijitu diguten bidetik joan gara eta orain paretaren kontra gaude. Garbi utzi nahi dut nekazari profesionalak garela, honetatik bizi garela. Nekazaritzatik zenbakiak ez bazaizkizu ateratzen, kanpoan bertze lan bat bilatzeko errateak ez dit balio. Gure lana nekazaritza da eta hau guztia gure lana ez delako baloratzen gertatzen da. Administrazioak zerbait egin beharko luke jendeak hemengo produktak zein diren eta nekazariak zein lan egiten dugun jakiteko. Orduan ikusiko luke kontsumitzaileak zeinen garrantzitsuak garen. Bertzela, hau sasi artera joanen da, nekazariak ez zaintzeagatik.

EUSKARA → FAMILIA BARNETEGIAK

Oporretan euskara ikasten eta familian ere euskaraz aritzeko ohitura finkatzen

AEK-k antolatuta familia barnetegiak egin dira aurtan lehen aldiz Zugarramurdin

Familian eta giro onean euskara praktikatzeko berte modu bat. Horixe da AEK-k udan antolatzen dituen familia barnetegien helburua. Eta aurtan, lehen aldiz, Zugarramurdiko Graxiana aterpea

aukeratu dute horretarako. Gaztelaniaz hobeki moldatzen badi-ra ere, abuztuko bi astez Zugarramurdin egon diren 19 guraso eta 20 seme-alaben erronka euskaraz mintzatzea izan da.

TTIPI-TTAPA | ZUGARRAMURDI

Honezkero, etxean egonen dira Zugarramurdin aurtan estreina-ko egin diren familia barnetegietan parte hartu duten guraso eta seme-alabak. Eta beharbada euren artean euskaraz solasean. Zugarramurdin egindako egonaldian, behinik behin, horrela egin dute.

Duela hamar bat urte ekin zion AEK-k familia barnetegiak antolatzeari. Bilbon sortu ziren eta urteekin Euskal Herri osora zabalduz joan dira. Izan ere, ohikoa da euskaraz ez dakiten edo ikasten ari diren gurasoek umeak D ereduko eskoletara bidaltzea, baina kasu aunitzetan, zaila egiten zaie egunerokoan harremanak euskarazizatea, inguruak edo ohiturek hala behartuta. Horretarako dira, hain zuzen, familientzako barnetegiak. Herri tiki

ZUGARRAMURDIKO EUSKARA

«Eskolan euskara batua erakusten dugu eta herritarrek bertako euskara egiten dute eta batzuei kostatu zaie»

Urtzi LAKUNTZA
AEKko irakaslea

ESALDIA

«Helduak euren artean euskaraz mintzatu dira, ongi gainera»

Margari ETXENIKE
Marixan ostatua

DATUA

45

LAGUNeko TALDEA
egon da uda honetan
Zugarramurdiko Graxiana
aterpean familia
barnetegietan

eta euskaldunak aukeratzeko dituzten AEK-k eta uda honetan Zugarramurdirekin batera, Adu- na (Gipuzkoa) eta For- rua (Bizkaia) izan dira hautatuak.

19 GURASO ETA 20 HAUR GRAXIANAN

Ekainean ireki zuten Zugarramurdiko Graxiana aterpea 45 laguneko taldea eduki du abuztuko bi astetan familia barnetegiek: 19 guraso, 4 eta 11 urte bitarteko 20 haur, bi begirale eta lau irakasle. Familia gehienak arabarrak izan dira, baina Bilbo eta Algorta (Bizkaia), Donostia eta Irun (Gipuzkoa) eta Iruñetik etorritakoak ere izan dira.

Goiz eta arratsalde okupatuak eduki dituzte. Gurasoek euskara ikasten pasatu dituzte goizak, eta begiraleekin jolasean, berriz, umeek. Bazkalondoan,

ordu bat eta erdiko klaseen ondoren, tailerretan elkartu dira guztiak, haur eta helduak. Sorginen mundua, bertso- laritza, ingurumena, herri kirolak... Gai andana landu dituzte.

Batzuk hobeki eta bertzeak makurrago, baina denek hizkuntza euskara izan da. Horrela baieztatu digu Urtzi Lakuntza irakaslea: «gurasoek euren artean euskaraz hitz egiteko ohitura izan dute hasieratik, nahiz eta ume batzuei euren artean egitea kostatu».

Guztien maila ez denez berdina, bi talde- tan banatuta aritu dira irakasleak: bigarren mailan batzuk eta hirugarrenetik aitzinera gainerakoak. «Gramatika eta idazkera ikasturte- an zehar lantzen dituzte eta udan mintzaprak- tika tokatzen zaie. Maila badute, baina ohitu- ra hedatu behar da»,

dio Urtzi Lakuntzak.

Hizkuntza bat ikas- teko motibazioa ere ezinbertzekoa da, eta Zugarramurdin familia barnetegietan aritu di- renei ez zaie falta izan. Irakaslearen hitzetan, «animoz eta gogotsu ibili dira».

ZUGARRAMURDIKO

EUSKARA:

KOSTATU ETA GUSTATU

Euskara batuarekin alderatuz diferentea da gurea, eta horren hari- ra, Zugarramurdiko euskarak arazorik era- gin ote duen ere galde- tu diogu Urtzi irakasle- ri: «batzuk errazago ulertu dute eta bertze- ei kostatu zaie. Esko- lan euskara batua era- kusten dugu eta herri- tarrek—zugarramurdi- rrek— bertako euskara egiten dute eta batzuei kostatu zaie. Halere, orokorrean ez zaie hain zaila egin eta gustatu zaie». Kostatu eta gus-





TTIPI-TTAPA

Guraso eta umeek otorduak elkarrekin egin dituzte Zugarramurdiko Graxiana aterpean.

tatu, beraz, bietatik.

Eskolatik eta Zugarramurditik kanpo, ateraldiak ere egin dituzte. Bertzeak bertze, Baztan eta Sara aldean bisitan ibili dira bazterrak ezagutzen. Eta herritarrekin ere harreman ona eduki dute. «Herritarrei galdetzeko eta eurekin hitz egiteko ariketak egin ditugu», azaldu digu irakasleak. Zugarramurdiko Marixan ostatuko Margari Etxenikere ere herrian integratu direla adierazi digu: «helduak egunero ostatura etorri dira eta euren artean euskaraz mintzatu dira, ongi gainera».

LEKU EGOKIA

«Herri euskalduna eta inguru aproposa» zelako aukeratu zuen AEK-k Zugarramurdi. Halaxe dio Lakuntzak.

Eta bi asteko egonaldien ondotik, balorazioa baikorra izan da: «oso giro ona sortu da, bai gure artean eta bai familien artean ere. Ez da arazorik izan».

Iritzi berekoa da Sofia Cisneros ikaslea ere. Azken hiru urteotan AEK-k antolatutako familia barnetegietan parte hartu duen Tuterako alaba da. Baranbion (Araba) bizi da eta hiru seme-alabekin egin du barnetegiko egonaldia. Eta TTIPI-TTAPAri errandionez, «gustura».

Zaila da euskara ikasleen profil zehatz bat egitea, baina guztiek dute abiapuntu bera: euskara ikastea. Egunerokoan euskaraz egiteko lehenbiziko urratsa egina dute, eta Zugarramurdin hasitako lanari segida ematea gelditzen zaie orain.

Sofia CISNEROS → Zugarramurdiko familia barnetegiko ikaslea

«Orain dela lau urte ia hutsetik hasi nintzen euskara ikasten eta lau urtetan euskaraz egitea lortu dut»



SOFIA CISNEROS ETA BERE HIRU SEME-ALABAK.

TTIPI-TTAPA

Zer moduz euskara klaseetan?

Ondo, gustura. Ikasteaz gain, ondo pasatu dut.

Nongoa zara?

Sortzez Tuterakoa naiz, baina Amurrio (Araba) inguruan bizi gara, Baranbion. Senarrak ez daki euskaraz eta hiru seme-alabekin etorri naiz.

Ez da familia barnetegietan parte hartu duzuen lehen aldia...

Hiru urtez jarraian parte hartu dugu. Orain bi urte Adunan (Gipuzkoa) egon ginen, iaz Berrizen (Bizkaia) eta aurtan Zugarramurdin. Eta balorazioa oso ona izan da.

Bizi zaren tokian euskaraz hitz egiteko ohiturarik baduzue?

Ez, batere ez. Baina tira, jakiteak lagundu egiten du.

Eta etxean?

Saiatzen gara. Ikasturtean zehar errazagoa da, baina udan zailagoa delako barnetegietara joatea aukera ona da. Haurrei euren artean euskaraz egitea ere kostatzen zaie, ohitura falta dutelako eta lagun artean eta inguruan gaztelania entzuten dutelako.

Zer iruditu zaizu Zugarramurdi?

Ez nuen ezagutzen, baina oso herri polita iruditu zait.

Eta Zugarramurdiko euskara zaila al da?

Orain dela bi urte Adunan egon ginenean, ez nuen ezer ere ulertu, baina Zugarramurdin moldatu naiz. Euskara bera da zaila.

Non ikasi zenuen euskaraz?

Orain dela lau urte, ia hutsetik hasi nintzen euskara ikasten eta lau urtetan euskaraz egitea lortu dut, eta ez dakit nola. Tuterakoa naiz eta lehendik euskara ez nuen ezagutzen ere...

Etxean euskaraz segituko duzue?

Asmoa hori izaten da beti, baina zaila da. Oraindik ez dut dena euskaraz esateko erraztasunik. Ume txikiekin errazagoa da baina 10-11 urteko seme-alabekin... Azalpenak eskatzen dituzte eta zailagoa da, baita gaztelaniaz ere!

Hurrengo urtean errepikatuko duzu?

Ez dut uste. Oso gustura egon naiz baina laugarren urtez egitea gehiegi izango da. Haur zaharrenak ia 12 urte edukiko ditu hurrengo urtean eta handiegia izango da etortzeko, gehienak 5-7 urte izaten baitituzte. Hori bai, haurrak gustura etorriko li-rateke. Ikusiko dugu.

**Nire txanda**

Fernando ANBUSTEGI

Argazkiak

Argazkiak irudiak dira. Lekuren bat, pertsonaren bat, gauzaren bat, momenturen bat erakusten duten irudiak. Argazkietan isladatutakoak sentsazio desberdinak eragin ditzake: poza, tristura, maitasuna, gorrotoa, ... argazkiaren arabera. Denaren, kasu eman, etxean, sakelean, autoan... argazkiak badituzue kontuz ibili! Ilegalak izan zaitezke. Ilegalak espainiar legedi etengabe berritzailearen arabera.

Euskal preso politikoen argazkiak ilegalak omen dira. Ez omen zaizkie gustatzen bertzeak bertze Portu, Mattin, Sanse, Patxi Urrutia edota Joxe Migelen aurpegiak. Beraien legediaren arabera Euskal Herrian behar luketen hainbat euskal herritarren aurpegiak bezalaxe. Zoritarrez, orain bertze argazki bat dugu jartzeko, eta jarriko dugu, argazkiak jartzeko beharrik ez izan arte.

Argazkietan isladatutakoak sentsazio desberdinak eragin ditzake: poza, tristura, maitasuna, gorrotoa...

Ezpala

Aitor AROTZENA

Irail mutua

Mututu dira hondartzako gramolak. Hala zioen Balerdi Balerdiren «iraila» kantuak. Mututu dira neska-mutikoen oihuak plaza, txoko eta igerileketan. Berriz ere ikastetxera, txandaka hori bai, A gripearen oihartzunak ez baitira mututzen. Mututu dituzte karrika eta ostatuetako hormak. Ikasturte berriarekin, itxuraz eta edukiz berritutako ttipi-ttapa duzue. Ez gaude mutu.

Nabarmentzekoak

Itsaso FAGOAGA
8. Europako txapelketan

19 urterekin oraindik juniorra bada ere, Europako Skeet olinpiko txapelketako finalean sartzeko puntuatzen izan zen lesakarra. Asteburu honetan, Espainiako kopan lehiatuko da.

Mikel MINDEGIA
Aizkolariari omenaldia

44 aizkolarik eta 7 harri-jasotzailek (baita 2 bertsozolarik ere) parte hartuko dute Zubietako Udalak 60 urte bete dituen aizkolari handiari irailaren 12an eskainiko dion omenaldian.

Bixente IGARTZABAL
Lesakako Ironmana

Munduko bi Triatlloi gogorrenetakoak (Altriman eta Embrunman) bukatu ez ezik 5. eta 61. postuak lortu ditu udan honetan (119 eta 862 kirolariren artean, hurrenez hurren).

Aztera begira → 1998.09.10 / TTIPI-TTAPA 238. zbk



Bidasoako Film Laburren I. edizioko saridunak

Bertziko Turismo Partzuergoak, Cederna-Garalur erakundearen eta Irun eta Hendaia udalen laguntzaz antolatutako lehen zinemaldia egin zen 1998ko irail hasieran. Hona zer zioen Lander Santamaria kazetariak TTIPI-TTAPAren 238. zenbakian: "Zinemaldia ahul eta ihar jaio da, baina ilusio handi batekin, eta uste dut laguntza eman behar zaiola aitzinera egiteko. Gurea, izan ere, afizioz eta tradizioz, eta film aunitzen eskenatoki izateagatik (laster bertze bat iragarri dute)... pelikuletako herrialdea baita".



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Andutzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usua Vicente, Kulturkari SLU **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorenena, Maite Oteiza, Jaione Obxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria...

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztebea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdi-ko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea

2009ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria ..36€	Ipar Euskal Herria54€	Amerika eta Australia120€
Espainia36€	Europa54€	Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza ..30€



Eusko Jaurerriak Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako
aldizkaria



ttipi-ttapa

- Papereko edizioa
- Hemeroteka
- Egunkeri berriak
- Agenda
- Merkatu titika
- Eguraldia
- Urtebetetxoak...

www.ttipi.net

Kolaborazioak

Pentsatu behar da?

Pello APEZETXEA

Pentsatzea omen da gizakiaren ezaugarri nagusia, gizakia animaliarengandik bereizten duena, animalien artean aitzin eta goiko mailara eraman duena. Horrela diote zientzialariek. Eta bertze hau ere bai: gaur egungo ezaqueradun gizakia baino lehen, bazela seguraski gizaki solastuna, baina oraindik pentsatzeko gai ez zena. Eta hara, pentsatzeko ahalmena zuena gailendu zen bertze gizaki talde guztien artean. Pentsatzeak duen eragina ikusi da, horrela, gizakiaren historian.

Horrek laguntzen ahal digu gure egoeraren alderdi batzuk konprenitzen. Boteredunak, nagusi izan nahi duenak, menpekoek ez pentsatzea bilatzen du. Diktadurak, hainbatek ikusi dugu, bilkurak debekatzeko, ez du publikoki mintzatzen uzten, ezta idatziak argitaratzen ere, eta argitaratuak daudenak eskuratzen ere ez. Diktadurak, erran dut, baina demokrazia izen duten sistema politikoak ere antzera saiatzen dira; botoa emateko eskubidea, bai, baina mugatua, ez nolanahi eta nornahiri; mintzatzeko eta idatzeko eskubidea, bai, baina neurri batean; hizkuntza desberdinetan argitaratzeko eskubidea, bai, baina... baina ez. Teorian eta itxuraz adierazten diren eskubide horiek gero eta gehiago mugatzen dituzte, gero eta baldintzatuagoak dira, gero eta oztopatuagoak.

Eta zergatik hori? Ez dute jendeak pentsatzea nahi; agintariak pentsatutakoa, hori onartu behar du jendeak, botere politiko, ekonomiko, erlijiosoen pentsamendua. Hori da hiritar zuzen eta egokiaren jokaera, legearen arabera ibiltzea, baina agintariak pentsatu eta paratutako legeak errespetatzea, agintarien telebistak erraten duena onartzea. Horregatik, kritikaria ez dute ontzat jotzen. Pentsatzeak sortzen baitu kritika, eta pentsatzea soilik goikoen gauza da. Bertzela, nola nagusi izan? Nola menean eduki jendea?

Pentsatu behar dugu? Jende izan nahi badugu... Edota nahiago txotxongilo izan?

«Horregatik, kritikaria ez dute ontzat jotzen. Pentsatzeak sortzen baitu kritika, eta pentsatzea soilik goikoen gauza da. Bertzela, nola nagusi izan? Nola menean eduki jendea?»

Bertizko Natur Parkea eta hobekuntza

Xanti BEGIRISTAIN

Uztailaren 19an izan nintzen Bertizko Jaurerriaren Natur Parkean. Lehenago ere, aspaldian, egona naiz beste hiru bat aldiz, eta airtortu behar dut, espero baino oztopo gehiago topatu nituela gurgil-aulkian dabilen jendearentzat.

Hasteko, bi komun egokiturik daude gurgildun aulkientzat, baina batean ezin zen maniobratu ongi, komun-ontzia gaizki ezarrita zegoelako; egin beharreko erreklamazioa bertan egin nuen, idatziz eta hitzez.

Jarraitzeko, interpretazio zentroan ez dago igo-gailurik; beraz, gurgil-aulkian doan jendeak behean gelditu behar izaten du, ez baldin badu antzerki traketsik egin nahi behintzat.

Aurrera segitzeko, esan beharra dago txondor eta kisu laberaino iristeko, bide kaskarra baino ez dagoela gurgildun aulkian ibiltzeko.

Ohitura den bezala, natur parke honetan ere, euskara bigarren tokian dago idatzita, batzuetan atzeko aldean (txondorrean eta kisu labean, esaterako) eta, gainera, kolore gutxiagorekin, nahiz eta teoriarik behinik behin «Euskal Eremuan» egon.

Bukatze aldera, Aizkolegira ezin da joan eroso gurgil-aulkian, nahiz eta hau motorduna izan, bidea oso kaskarra delako horretarako. Autoz joan daiteke, baina horretarako baimen berezia eskatu beharra dago egun batzuk lehenago; horrelakorik ez da gertatzen Iratiko oihanean. Ni neroni izana baino bertan, bai Aezkoa aldetik eta bai Zaraitzu aldetik, eta baimena toki berean eman zidaten egunean bertan.

Badakit Pedro Ziga jaunak, Jaurerria Nafarroako Diputazioari eman zionean, baldintza bat ezarri ziola, alegia, ezaugarriak bere hartan mantentzeko, deusetan aldatu gabe. Hori oso ongi iruditzen zait. Dena dela, harrezkero, hainbat hobekuntza egin dira, konparaziora, bainugelak, interpretazio zentroa, turismo bulegoa, aparkalekua, harra zentroa eta etxola, jostalekua, gazte aterpea eta abar eta abar.

Ziga jauna oso eskuzabala izan zen nafar guztiekin. Hori bera eskatzen diot nik Nafarroako Gobernuko oraingo lehendakari Sanz jaunari, hau da, izan dadila eskuzabala nafar guztiekin. Baita mugikortasun urriko pertsonen ere. Eskubideetan berdintasuna, besterik ez baitugu eskatzen. Mugikortasun gutxi pertsonoi ere gustatzen baitaizkigu kultura, aisia, natura eta abar.

Hori guztia lortzeko zer behar den, ba, adibidez, gehiago inbertitzea, Sanz jauna, Senda Vivan bezalaxe.

«Mugikortasun gutxi pertsonoi ere gustatzen zaigu kultura, aisia, natura eta abar»

Irakurleak mintzo

Hau justizia hau

Xanti Begiristain
IRUÑEA

Suposatzen dut Espainiako Justiziak gauza batzuk ongi egingen dituela, baina egia esanda, Egunkariaren auziarekin egiten ari direna ikusita, oso zaila da justizia horretan pixkatxo bat bakarrik ere sinestea.

Auzitegi Nazionalak azkenean epaiketa egingen du Martxelo Otamendi, Joan Mari Torreal-dai, Iñaki Uria, Txema Auzmendi eta Xabier Oleagaren aurka, etakide izatea egotzita.

Zoritxarrez, gainera, tankera horretako epaiketak ez dira bakanak izan Euskal Herrian azken urte hauetan. Denok gogoratzen ditugu, esate baterako, Egin egunkaria eta irratia kasuak, 18/98 auzia eta beste ha-maika.

Orain, nonbait, sinetsarazi nahi digute gora-go aipatu ditudan pertsonak gaizkile huts, amorratu, gorrotagarri eta ezin arrisku-suagok direla, alajaina!

Baina, ezagutzen ditugunok badakigu guztiz bestelakoak direla, hau da, kultura zaleak, langile finak eta pertsona apalak: idazleak, kazetariak, esatariak, euskaltzain osoak, erlijiosok, egunkari zuzendariak, eta abar, egunero aurpegia ematen dutenak eta behien ere ezkatutu ez direnak.

Pertsona horiek eta kide bezala epaitu behar baldin badira, uste dut Euskal Herrian eta mun-

du osoan, beraiek bezalako beste milioika giza-ki gaudela egoera berean, alegia, epaitu beharrekoak.

Nire elkartasunik handiena Martxelo, Joan Mari, Iñaki, Txema eta Xabierrentzat. Baita auzi ekonomikoan ukituta dauden guztientzat ere. Eutsi goiari!

Hasieran esan dudana bezalaxe, nekez sinestu daiteke izpirik ere halako justizian.

Eraso faxista

Malerrekako Gazte
Asanblada
MALERREKA

Dagoeneko pasa dira pare bat, hiru urte Malerrekako herrietako gazte talde baten ezinegonaren ondorioz Malerrekako Gazte Asanblada (MGA) sortu zela.

Hasiera hasieratik MGA-ren helburua bertako jendeari eta gehien bat gazteei eskaintza alternatibo bat plazaratzea izan da. Gaur egungo gizarte kapitalistak inposatzen duen gazte eredu sumiso eta indibidualistarekin hautsi eta gazte kritiko eta konprometituak sortzea.

Ordutik hona, askodira MGA-k bultzatutako ekimenak: gazte egunak, eskualdeko gazte topaketak, mendi ibilaldiak, hitzaldiak, tailerrak, bideo emanaldiak,...

Guztiok dakigun bezala, nahiz eta penagarria izan, gaur egun horrelako edozer gauza antolatzeke dirua beharrezkoa da. Arazo honi

aurre egiteko inguruko herritako bestetan txozna bat jartzea izan da orain arte erabili dugun bitartekoa. Hala nola Iturenen, Elgorriagan eta Donamarian jarri izan da eta aurrean lehen aldiz Legasan jartzea adostu genuen herriarekin.

Arazorik gabe burutu genituen baimen eskara eta muntaketa lanak harik eta larunbat gauean norbait txoznaren barruan sartu eta kutsu faxistako margoketa batzuk egin arte. Margoketa hauek gorritz egindako, parebat "diana" edo "gurutze" eta bi esaldi zerkartzaten "Hemen ez, Alde hemendik, Puta semeak" eta "Juan de balde se murio". Honetaz gain txoznan aurretik jarrita zeuden pegatina asko zirriboratu eta zakarontziko zaborra sartu zuten barrura.

Malerrekako Gazte Asanbladatik ekintza hau irmotasunez salatzen dugu eta margoketak burutu zituenari eta berdinean pentsatzen dutenei helarazi nahi diegu ez gaituela horrelako ezerk geldituko. Bide onean goazela badakigu, herri guzterekin dago eta honek edozein erasori aurre egiteko indarra ematen digu.

Gure aldetik, orain arte bezala, herri hauetan dinamika ezberdinak antolatzen jarraituko dugu, gure herrien alde elkarrekin lan egin eta esku-bide urraketa guztiak borrokatzen, Malerreka eta Nafarroaren alde lan egiten, Euskal Herri berri baten bidean lan egiten.

Zuzenketa
oharra

TTIPI-TTAPAren TELEFONO GIDA 2009 liburuxkan akatsa dago 34. orrialdean. Iñaki OLAIZOLAREN iragarkian, telefono mugikorra-

ren zenbakia ez da zuzena. Apunta ezazue, mesedez, zenbaki zuzena: 670 417 499. Zailantzarik izanez gero, begiratu iragarki zuzendua aldizkari honen 12. orrialdean.

Barkamenak Iñaki Olaiolari eta bezero guztiei.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: **Andutzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



Bota bertsoa

Iñar TAINTA (Lesakako bertso eskola)

Uda badoa

Uda aldean eguzkiarekin
goxotzen zaigu azala
epeltzen zaigu eguraldia
eta zuhaitz ondoko itzala
uda aldean gure umorea
ez dagonez nola hala
besta giroan eskolik gabe
denbora doa berehala
momentu onak oso azkar doaz
izar uxok bezala.

Garai ederrak azkar joaten
dira udarekin batera
haizegoarekin eguzki aurrean
helatuarekin gainera
baina gauz denek badutelako
beti bere amaiera
bi hilabetez egon garenez
pilak kargatzen sobera
jada hartutako indarrarekin
gogoz berriro hastera.

11 galdera labur

Kantaria, musikaria, dantzaria, irakaslea... bada zerbait gustatu eta oraindik egin ez duzuna?
Gauza asko... ez dakit...

Duela 9 urte TTIPI-TTAPAN esan zenuen musikari profesionala izatea zenuela amets

Hori esan al nuen! Askok gustatzen zait musika baina... profesional izatea gehiegi izanen da. Nahia-go eguneroko lan bat eduki eta...

Halere, zure afiziorik garrantzitsuena musika dela esan daiteke?

Bai. Afizio bezala hobea da baina lanbide bezala gogorra.

Irakaslearen oporrak plazaz-plaza pasatu dituzu?

Aurten ez hainbeste baina oporrak udan izaten dira eta emanaldi gehienak ere bai.

Zenbat aktuazio ematen dituzu urtean?

Askok, ez dakit zehazki. Kontzertuak, kantaldiak, bodak...

Nolako osasunean ikusten duzu kantu zaletasuna?

Hobetzen ari denaren inpresioa ematen dit baina, halere, kanpoko musikak indar handia du.

Zein da gehien kantatzen duzun kantua?

Ez dakit, 'Erribera', Jotaren bat, Xalbadorren heriotza,...

Noizko zure kantuz osatutako CDa?

Kebea, kantu bakarra dut nirea, 'Zuri kantari' anaia zenari eskainia.

Eskolan erabiltzen dituzun errekturtoak izanen dira musika eta kantua, ezta?

Bai, asko gainera.

Orain hasi behar bazenu ikasten, gauza bera ikasiko zenuke?

Bai, nik uste dut baietz.

Buruan duzun asmo edo amets bat?

Ni neu eta etxe-koak ongi eta gustora egotea.



Jaione OLAZABAL → Aresoko gaztea

BERA Zure ingurua klase guztietako insektuz (xamorra, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta erratoi xagutzaz garbitu nahi baduzu, deitu! Termito eta Pipien tratamenduak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zalein, 42 A • BERA

ALVARO LOPEZ
Eskaiola, pladur larak, sabai modularra, tabiueak
OBRA ZIURTAGIRIAK

LESAKA • 651 704 593

XIRALI

Altzola 1: BERA
Telefono: 948 621 488

ZOANSA

SEAT
VW
HYUNDAI
Audi

MARKA GUZTIEK KONPONKETA
Banarta, 2 - Alkaiaga Industrialdea
LESAKA (samera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

udana salazones

UNE-EN-ISO 9001
LAC
SISTEMA DE GESTION DE CALIDAD CERTIFICADO
S00-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. - Banarta, 8 - 23. pabiloia - LESAKA - Thoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 550

BERA

UDALA → DIRULAGUNTZAK

127.800 euro hartuko ditu Udalak Kultur Etxean obra batzuk egiteko

Harmailak
berritzeko
erabiliko da
batez ere

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak herrialdeko kultur etxeen artean banatuko dituen 11 milioi horietatik zati bat Berako Udalarentzat izanen da, Kultur Etxean obra batzuk egiteko. Zehazki 127.878,98 euro jasoko dira, 255.757,96 euroko aurrekontuaren %50a. Dirulaguntza aurten eta heldu den urtean hartuko da: 63.939,49 euro 2009an eta bertze 63.939,49 euro 2010ean.

Laguntza horrekin hainbat berrikuntza egingen dira Kultur Etxean, bertzeak bertze, harmailak berritu. Inklinazioan paratuko dira eta aulki berriak jarriko dira. Horrez gain, eszenatokiko tresneria ere berrituko da. Lanak urrian hastea espero du Udalak.

PROIEKTU TURISTIKOAK GARATZEKO LAGUNTZA

Nafarroako Gobernuak 43.200 euroko dirulaguntza ere hartu du

Udalak. Herriko eraikin zahar bat zaharbertzako proiektu bat idatzi eta turismo-aterpea egiteko izanen da.

Ertz jaialdia

Gaiean dugu Ertz jaialdiaren X. edizioa, bertze musiken jaialdia da. Bertze urte batez denetarik musika doinuak entzuteko aukera izanen da Beran, Donostian eta Tolosan (Gipuzkoa) eta Hazparnen (Lapurdi). Aurten hamar urteko ibilbidean ezagututako hainbat artista gonbidatu dituzte berri.

Irailaren 9an emanen zaio hasiera Donostiako Tabakaleran, eta biharamunean ere Tabakaleran izanen da Ertz jaialdia.

Hilaren 12an Berako Kultur Etxean Toshimaru Nakamura & Ignaz Schick; Ander Lipus, Miren Gaztañaga & Xabi Strubell; Gregg Kowalsky; Alex Mendizabal eta Tzesnek kontzertua eskainiko dute. Hilaren 13an, Kaxerna gaztetxean Mattin, Emma Hedditch, Anthony Iles & Howard Slater; Alex Mendizabal, Jakoba Errekondo, Juan Jose Aranguren; Adi Bera; Iñigo Ugarteburu eta Mursego



ARGAZKIA: ASIER GOGORTZA

Bortzirietatik Veneziara

Erromako ACE (Associazione Culturale Euskara) elkarteak gonbidatuta Xabi Erkizia lesakarra eta Asier eta Ibai Gogortza eta Iñigo Telletxea beratarrak Venezian (Italia) izan ziren uztail hondarrean Arte Biurtekoan parte hartzen, Oier Etxeberria, Maialen Lujanbio eta Judith Monterorekin batera. Nazioarteko arte topaketa honetan parte hartzen ari den Kurdistango ordezkariak Euskal Herrian egindako grabaketez osatutako soinu maparen inguruan interesa agertu zuen, eta horren harira, joan ziren Veneziara. Aipatu soinu mapaz gain, bertze hainbat lan ere eraman zituzten hemendik. Bertzeak bertze, Nafarroako Agoitx herria eta Veneziaren arteko antzekotasunak erakutsi zituzten, etorkizunera begira zenbait adituren ustetan urak bi leku hauek hartuko dituelako. Irudi eta soinu muntaiaren herri hauen oraina eta etorkizuna erakutsi zuten, eta Ornitorrinkus taldearekin kontzertua ere eskaini zuten. Azaroa bitartean hantxe izanen dira euren proiektuak ikusgai, artelan kurduen tartean.

etorriko dira.

Irailaren 14an Tolosako Bonberenea eta Donostiako Artelekuk hartuko du lekukoa eta eta 19an Hazparnek.

Matrikulazioa Musika Eskolan

Isidora Fagoaga Udal Musika Eskolak ikasturte berrian matrikulatzeko epea zabaldu du. Haur, gazte zein helduek irailaren 11 arte izanen dute horretarako aukera. Bulegoa 9:30etik 13:00etara dago irekia.

Bertalde, aipatu, irailaren 9an, kontzertu pedagogikoa eskainiko duela Musika Eskolak, 18:30ean eskolako areto nagusian.



ARGAZKIA: LUIS IRAZOKI

Argiak Matzadan

Denboraldi berriko entrenamenduak baldintza egokietan egiteko aukera izanen dute Gure Txokoa futbol taldeko jokalariek. Uztailaren 30az geroztik argiteria berria baitu Matzada futbol-zelaiak. Apirilean Gure Txokoa, Gipuzkoako Futbol Federazioak eta Udalak hitzarmena sinatu zuten, eta horren bidez, 90.000 euro inguru kosta diren lanak osorik Federazioak ordaindu ditu.



ALFA
BETA
GAMMA
DELTA
EPA
ZETA
ETA
THETA
IOTA
KAPPA
LAMBDA
MAY
NUN
XI
OMEGA
PI
RHO
SIGMA
TAU
Upsilon
V
W
X
Y
Z

Baldartzat nuen nire bu- rua sei-zazpi urte nituela. Horregatik sortzen zidan ikara lehengusuari txiki geratutako txirrin- da handi hura hartu eta amarekin hon- dartzako malekora joateak. Ez nuen asmatuko; erori egingo nintzen abian jartzerako; min hartuko nuen. Ez nuen, nire ustez neurezkorik bi gurpilen gainean ibiltzeko. Lehen aldi hartaz gogoratzeak barre- murrizta sortzen dit orain. Gerora, izugarri gozatu izan dut haseran sofrituarazi zidan hura eginez.

Lehen arraultzea frijitzea ere ez da lantegi errazegia izaten
sukaldean ezer gutxi egitera ohitua dagoen nerabe gizo-
neazkoarentzat. Olio ez aski berotan botako nuen lehen arraultzea;
olio zipristinekin izutuko ninduten bigarrenaz; hirugarrenean gorringoa
gehiegi egingo zitzaizkidan, edo gutxiegi. Eta arraultzeari puntilla ateratzea
gehiegi ekarizko izango zen... Egun, sukaldean aritzea da gehien erlaxatzen nuen
ariketa.

Umeari, kokortzean, lehenengoz giltzak ematen zaizkiolarik, ez zaizkio
eraman soilik egiten. Sortutak berezi egiten zaizkio lehenik haur ezkaratzeko,
beste haur garajekoa, haur etxekoa... Eta aholkuak ematen zaizkio atea
nola ireki atera dezan. Aberturaz handia da haurrarentzat lehenengoz
ate bat irekitzea. Gero, ohitu egiten gara eta atea ataratuaz irakatsi
zailagoa izaten da maza atea zabaltzea baino.

Txikiak sumatzen nuen nire burua zenbat gozatuorik mugitzen, ahik
kotzen, dinkuluritzen... Baina ez nuen sekula arretarik izan horiek
egiteko. Irakurtzen... eta gozatuorik izan omen nintzen. Hiru lau
urterdikotako omen nuen eta uste nuen kobaz. Txindukeriaz maita-
nuen. Egunkaria hartu eta jakin nuen nola nire aklakariak
kulturanak maita zituzten. Txindukeriaz maita nuen. Txindukeriaz maita
nuen. "Zain dila, orain, haurrak bi maza maitatu eta
gera bideak dituzte?" "Mazak? "Tia haurrak bideak
dituzte eta bideak dituzte?" "Baina... Eia..."

Hortaz, haurrak maitatu eta geratu eta egiten dituzte
afektuak bideak dituzte. Hortaz, bideak dituzte eta
afektuak dituzte, eta ez bideak dituzte eta bideak
dituzte. Baina bideak dituzte eta bideak dituzte.

Andoni Egoña
Bertsolaria



ZERTAN IZAN ZEN GOIZTIARRA ANDONI EGAÑA?

Ondoko galderari erantzun eta liburu bat oparituko dizugu euskaltegian matrikultatzean.

Laguntzaileak



Artxibatuak

Nafarroako Iparraldeko euskara markomunitatea
Bortzirietako euskara markomunitatea
Baztango euskara zerbitzua

Babesleak



Informazioa telefonoak

Suñiki Aek Elkarrekin 948 452 471
Aek Leizorren 948 604 704
Ika Lasaka 948 637 796
Ika Leizor 948 610 776

LESAKA

GIZARTEA → ATXILOKETA

Andoni Sarasola Frantzian atxilotu eta kartzeleratu dute

Elkartasun manifestazioa galerazi zuen Guardia Zibilak abuztuaren 22an herria erabat hartuta

Abuztuaren 19an atxilotu zituzten Saboya departamentuan eta 96 orduko inkomunikazioa bukatuta, Andoni Sarasola, Aitzol Etxaburu eta Alberto Matxain kartzeleratzeko agindua eman zuen Laurence Le Vert Pariseko epaile bereziak, "ekintza terroristak egiteko gaizkile taldeko kideak" direlakoan eta "arimak edukitzeagatik".

Aitor AROTZENA

Andoni Sarasola herri-tarraren eta bertze bi lagun-en atxiloketa salatze-ko abuztuaren 22an "Errepresioa ez da bidea" izenburupean deitutako manifestazioa ez zen egin, herria erabat okupatu baitzuen Guardia Zibilak. Herri sarrertan kontrol izugarriak jartzeaz gain, herri barnean ere hainbat eta hainbat guardia zibil ikus zitekeen egun horretan eta plazara sartzea debekatu zuten, baita pasiatzen zebiltzan herritar eta kanpotarrei ere. Gisa honetara, manifestazioa ez zen egiterik izan.

Gauza beretsua gertatu zen Andoni Sarasolaren atxiloketaren inguruan informatzeko abuztuaren 19an deitua zegoen batzarrean ere. Orduan, 120 guardia zibil zenbatu zituzten herrian. Batzarra plazan egitekoa bazen ere, dena hartua zegoela eta Herriko Etxean egin zen. Batzarra bukatuta elkarretaratzea egiteko asmoa zen, baina Guardia Zibilak debekatu egin zuen eta udaletxetik ateratzen zirenak bideoan grabatu zituen. Bi minutu eman zituzten jendea sakabanatzeko.

120 GUARDIA ZIBIL
Informazio batzarra egin behar zen egunean 120 guardia zibil zenbatu zituzten. Manifestazio egunean gehiago ere baziren.

Bittiriako bestak hilaren 11tik 13ra

Irailaren 11n, ortziral arratseko 21:00etan botako da Bittiriako beste-tako txupinazoa eta kalejira egingen da. Ordu-bete lehenago patata tortilla eta Bittiria auzoko II. trikitixa txapelketak hasiko dira. 21:30ean txootx! berendu afaria egingen da eta 23:00etan rock kontzertua The Marrantak eta The Cheesy Poofs taldeekin.

Larunbatean, irailaren 12an, txistulariekin diana egingen da 10:00etan. Herri kirol



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Bazkidearen Eguna ospatu zuten kiroldegian abuztuaren 21ean

Bazkidearen Eguna ospatu zuten joan den abuztuaren 21ean kiroldegian. Goizean, orientazio proba antolatu zuten eta kiroldegitik maparekin eta argibideekin abiatuta, Fraingo magalean barna ibili ziren partehartzaileak, gordetako txo-koen bila, berriz ere kiroldegira itzultzeko. Segidan, ttikienetzako jokuak hasi ziren: igeriketa txapelketa, aulki-jokoa, zapiaren jokoa, arraultze-kutxara karrera, sagar-jokoa... Eguerdian paella-jatea izan zen eta bazkalondoan, tai-chi erakustaldia igerilekuko belagian. Ttikienek, zinema ere izan zuten ikusgai, egu-nari behar bezalako akabaila emateko.

Beti Gazte jokalaria bila

2009-2010 denboraldian jubenil, kadete, emakume eta nesken futbol-7 taldeetan jokatzeko jokalaria behar ditu Beti Gaztek. Interesatuek 666966888 telefonora (Salva lantzi) deitu behar dute. Hel-duen kategorian bi talde izanen ditu denboraldi honetan Beti Gaztek, Ohorezko mailan nagusia eta Gipuzkoan Erregionaleko lehen eta bigarren maila biz bat egin ondotik sortu den Gorengo mailan bigarrena.

Itsaso Fagoaga zortzigarren

Itsaso Fagoagak zortzigarren postua eskuratu zuen Kroaziako Osijek hirian jokatu zen Europako Skeet Olinpiko txapelketan. Tiralari lesakarra, oraindik junior kategoriakoa bada ere, finalean sartzetik plater bakarrera gelditu zen. Halere, iazko berderatzigarren postua hobetu du. Orain, irailaren 5 eta 6an Irunen jokatu den Espainiako Kopa prestatzen buru belarri ari da lesakar gaztea, iazko garaipena defendatzeko.

INAKI OLAIZOLA
elektritzitatea

Elektritzitatea orokorrean
Muntatzen elektrikoak
Alarnek

Bittiria, 39 • LESAKA • 948 637 405 • 670 417 499

BOZZ-AID

BOZZ-AID

BOZZ-AID

BOZZ-AID

BOZZ-AID

IRU BIDE
Energia - Auzoak

IRU BIDE

IRU BIDE

IRU BIDE

IRU BIDE

XATURETXEA

XATURETXEA

XATURETXEA

XATURETXEA

XATURETXEA

OSPAKIZUNAK → AISIALDIA

Arrakasta handiz ospatu da Erraldoien Lehen Topaketa

Giro onak ez zuen hutsik egin

Joseba eta Nerea

Arrakasta handiz ospatu zen abuztu hasieran Etxalarko Erraldoien I. Topaketa. Altxata Kultur Elkarteak antolatuta, jende parrasta hurbildu zen plaza bazterrerara goizean goizetik eta hainbat herritatik etorritako erraldoi eta buruhandiekin batera, kalejiran ibili ziren denak.

Arratsean gaupasa izan zen gazteek antolatuta. Altxatakoek taloen postua paratu zuten frontoian eta gazteek txosna. Bisai, Kuber eta Luz de Putas taldeak kontzertua eskaini zuten eta Oartzungo Zozongo batukadak giroa alaitu zuten kontzertutik kontzerturako tartean. Gaua akabatzeko, herriko bi DJk, Tolare eta Aldalurrek, musika paratu zuten. Goizalderaz zuten besta.

Lerro hauen bidez, Altxatak eskerrak eman nahi dizkie erraldoien to-



Erraldoien topaketako protagonistak.

paketan parte hartu eta euren laguntza eman zuten guztiei.

Ikasturte hasiera desberdina

Modu berezian hasiko dute Landagain eskolako haurrek ikasturte hau. A gripea dela eta, Maria Kutz Nafarroako Osasun kontseilariak aitzineratu bezala, hiru aste desberdinetan hasiko dira ikasleak. Junkal Altzuguren zuzendariak baieztatu digunez, «irailaren 3an Haur Hezkun-

tzakoak eta 1. ziklokoak hasiko dira eta hilaren 9an 2. eta 3. ziklokoak». Gripe-epidemiari ez sortzeko Gobernuak martxan paratutako plan bereziaren barruan dago ikasturtea modu mailakatuan hastearen erabakia.


Ikastaroak

Word eta Excel programak erabiltzeko bi ikastaro antolatu dituzte Kultur Etxean. Lehena irailaren 7tik 11ra izanen da, word-ekoa, 16:00eta-

tik 18:00etara. 10 ordu iraunen ditu. Bigarrena, excel-ekoa, irailaren 14tik 18ra izanen da. 15 euro balioko ditu bakoitzak eta Kultur Etxera deituta eman behar da izena (948 635386).

Postuen subasta

Larunbat honetan, irailak 5, egingen dute Usategietako ehiza postuen enkantea. Urtero bezala, Herriko Etxeko batzar aretoan izanen da, 12:00etatik aitzinera.



Pertsonaia
Iñigo LASAGA

Sarako Kontrabandisten lasterketako irabazlea

Sekulako sasoian dago Iñigo Lasaga. Abuztuaren 23an Sarako Kontrabandisten Lasterketa ezagunean txapeldun izan zen 43 minutu eta 27 segundoko denborarekin. Aurten parte hartu duen kasik lasterketa guztiak irabazi ditu Lasagak eta liderra da Nafarroako Mendi Lasterketa Kopan. Bertze hiru lasterketa gelditzen zaizkio zirkuitoa osatzeko, Uharte-Arakilen irailaren 20an, Olaztin 26an eta Etxarri Arnatzen urriaren 4an. Martxa ederrean doa eta horrela segitzen badu, irabazle izanen da. Animo!

LEGARRA

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOA
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

TESTU LIBURUAK ENKARGUZ

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

USOA
nekazari kooperatiba
ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tel: 948 635 214 • ETXALAR

Javier Manterola
Tehniko instalatzailea
Iturgintza • gasa
kalafaktzioa
Tfnoa: 629449602 • BERA

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanoak desde
1940

Alzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

ARANTZA

HEZKUNTZA → IKASTURTE BERRIA

Zazpi neska- mutiko berri izanen dira ikasturte honetan

Ohi bezala
irailean goizez
bakarrik izanen
dute eskola

Nerea ALTZURI

Batzuk oroitzapen onak ditugu eskolako lehenengo egun haiei buruz solasean aritzen garenean; bertze batzuek ez hain onak... Bainabeti ailegatzan da eskolan hasteko eguna. Urduritasunak, negarrak, jostetak, lagun-artea, gauza berriak ikasteko grina... izaten dira aitzinetik eta denboraldi horretan etxeko goxotasunaz gain, ikaskide eta maixuen eskua ere ezinbertzeko dira.

Bukatu zaizkie aunitzei oporrak eta ailegatu zaie zazpi neska-mutikori eskola ezagutzeko ordua. Egoitz, Bihotz, Eneritz, Xuban, Ekai, Aimar eta Oihan ikasle berriak dira. Egokitzapen

prozesuan izanen dira eta laster seguru gaude etxean bezala sentituko direla.

Batzuk berriak eta bertzeek eskola zaharra utzi eta ikastetxe haundiagora joateko bidea hartua izanen dute. Eskolako bidean urte aunitz dituzte denek aitzinetik. Bitartean, guk garai haiek oroitzeko baliatu ditugu lerro hauek... Puf! Zenbat urte pasatu diren!

FLASH

Euskara Batzordearen bilera

Lanean segitzen du Euskara Batzordeak eta hurrengo bilerarako hitzordua ere egin du: irailaren 18an izanen da, 16:30ean. Eskola artean dituen proiektuen artean, Arantzako telefono gida egitea dago.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Udako hilabeteak

Ikasturte hasieran, herriko berriak idazterakoan, udako azken asteak nola joan diren aipatzeko probaxten dugu tartetxo hau. Uztaila akaututa, denak besten esperoan egon ginen. Abuztuaren 14ko arratsaldean Amabirjinak lehertu ziren, Martin Ibarrola musikariak botatako txupinazoarekin. Urte aunitzetako txistulari lana eskertu nahi izan du herriak aurtan. Hala, Amabirjin Egunean, meza ondotik, omenaldia egin zitzaion Martini, udal ordezkariak plaka eder bat eman zioten eta aurreku bat ere dantzatu zitzaion. Bertzalde, bestetan, musika, dantzak, presoen aldeko brindisa, kirolak, afari-bazkariak, suzko zezanak, mus txapelketak, elizkizunak, bertsolariak, sagardotegi ibiltaria, haurrentzako joko eta pailazoak, bingoa, dantza lehiaketa... izan dira. Berrikuntza pare bat ere ezin aipatzeko utzi. Herriko 20 bat lagunak osatutako batukada taldeak arrakasta lortu zuen Amabirjin Egunez. Arratsaldean hasita, musikariak karrikaz karrika ibili ziren goizaldeko ordu tikiak arte eta giro paregabea izan zen. Astelehen goizean, berriz, hamar probez osatutako norgehiagoka izan zen, herriko seme-alaben eta dagoeneko aranzartuak diren gazteen artean. Ekitaldi arrakastatsua izan zen hau ere. Bestak bukatu eta hiru egunetara, **Arantza Rock 2009** ospatu zen. Eguerdian koadrillek Ekaitza Elkartean eurek prestaturiko bazkaria dastatu zuten, eta triki-poteoa eta jokoak egin ziren arratsaldean. Gauean, bortz musika taldek zuzeneko kontzertuak eskaini zituzten. Talde euskaldunak izan ziren, eskualdekoak zein urrunxeagoakoak. Esne Beltza taldean, adibidez, Iban herriko baterajolea aritzen da. Jende aunitz bildu zen eta giro ederra sortu zen. Baina Gazte Asanbladatik azpimarratu dutenez, lanerako jende guttiegi. Ia betikoa, maila hauetako ospakizunak antolatzean.

iparra
Kasi Iparagirre Alzori
FISIOTERAPISTA

Rehabilitazio fisioterapiak
Kinesiologia
Masajuekin, akupuntura, osteopatia

00 33 559 48 19 32
Teléfono 3-110141

ERROTARZAR
harategia

Berrak
produktuak

Eztegara, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 068

ERREKALDE
PLATER KONKURTAK
DANTZAK
KONTZERTAK

TFNBA: 948 630 259 BERA

MERTZERIA
Leño
LENTZERIA

Tel 948 627 914
Berrak Plaza, 11 - LESABA

KIROLA → TXIRRINDULARITZA

XIX. Mendi Bizikleta Ibilaldia eginen da igande honetan

23-25 km egin
beharko dituzte
txirrindulariek

Joxe Mari Goia
igantziarra,
iazko edizioan



TTIPI-TTAPA

Biltoki Elkarteak antolatuta, mendi bizikleta ibilaldiaren XIX. edizioa eginen da igande honetan, irailak 6. 10:00etan hasiko da itzulia eta txirrindulariek joan den urteko ibilbide berdintsua egin beharko dute: herri-
tik abiatu eta Berrizaun, Pagola mendia, Aranibar (Arantza) eta Unanu aldean barna pasatuz, herrira buelta. Ibilbidean aldaketa tiki bat egin behar izan da, Berrizaungo obrak direla-eta. Halere, beti bezala, 23-25 kilometro egin beharko dituzte. Ibilbidearen ondotik, kirol materiala zozketatuko da aurten ere eta parte-hartzaile guztientzat gosaria emanen da.

Joan den urteko edizioa arrakastatsua izan zen, 52 txirrindulari elkartu baitziren irteera puntuan. Helmugan, nahiz eta sailkapen ofizialik ez izan, Joxe Mari Goia herritarra izan zen lehena. Bigarren postua bertze igantziar batek lortu zuen, Biltokiko Aitor Almandozek, eta hirugarrena Joxe Mari Goiaren taldekide batek: Urko Munduatek.



"Merezi duzu" Nomina Zerbitzua

NOMINA HONEKIN DENAK DIRA ABANTAILAK

EUREN NOMINA RURAL KUTXAN KOBATZEEN DUTEN GUZTIEK BADITUZTE JADA BALDINTZA FINANTZARIO BAKARR HAUAK.

- Nomina Kontua komisiorik gabe.
- Nomina-sumerakina dohainik.
- Nomina mailegus konfiantzurik gabe.
- Zordunketa eta kreditu bertsuek jaulkipen kuotarik gabe eta urteko kuota %100 eta %50 arteko beharpenak humenaz hurren erosketetan egindako erabilpen mailaren arabera.
- % 10eko deskontua Etxebizitza, Bizitza eta Istripu Asesurutan.
- Zordunketa bidezko diru-ateratzuek dohainik eta mugagabeak Nafarroatik kanpo edozein erakunderen Servired kutxazainetan.
- Doako kudeaketa, errezibuen zure kontuan zorduntzeko.

HELBIDERATU ZURE NOMINA RURAL KUTXAN ETA ONURATU ABANTAILA GUZTI HAUETAZ.

DEN-DENA MEREZI DUZU

nire aukera

Merezi duzulako.

SUNBILLA

AZPIEGITURAK → GASA

Udazkena akitzerako ailegatuko da gas naturala

260.000 euroko inbertsioa egin omen du Gas Navarrak

Jaione OTXANDORENA

Lesakatik Elizondoraino eramanen duen gasbideko lanen barnean, sunbildarrak izanen gara gas naturala etxean izanen dugun lehenak. Abuztuaren 25ean frontoian egindako bileran jakinarazi zenez, herriko 200 familia baino gehiagok izanen dugu zerbitzu honetara sarbidea.

Aipatu bileran, Paco Errandonea alkatearekin batera, Jose Antonio Ayesa Nafarroko Gobernuako Industria Segurtasun Zerbitzuko zuzendaria, Angel Boillos Gas Navarrako zuzendari nagusia eta Celestina Lopez, enpresa bereko zuzendari komertziala izan ziren azalpenak ematen.

Herriko gasifikazio faseen berri eman zuten eta udazken hondarerrako zabalduko dela adierazi zuten.

Gas Navarra enpresak 260.000 euro inguru inbertitu omen ditu dagoeneko herrirako beharrezkoak diren azpiegituren eraikuntzan.

Ikasturte hasiera aurreratua

Komunikabide eta ahoz-ahoz dabilen A gripea delakoari aurre egiteko neurriak hartu ditu Nafarroako Gobernuak. Horietako bat ikasturte hasieran aldaketak egitea izan da. Hala, ikastetxe bakoitzean ez dira ikasle guztiak egun berean hasiko, txandaka baizik. Sunbillan ere, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek ordezegunean hastekoa dute ikasturtea eta zaharagoek irailaren 9an.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gas Navarrak abuztuaren 25ean eskaini zuen azalpen bilera.



ARGAZKIAK: ONDIKOL ETA J. OTXANDORENA

Giro ederrean joan dira aurtengo Santiburtzioak

Besta ofizialak borts egunetan izaten baldin badira ere, aurtengoan, gazteek antolatutako kontzertu eta gaupasarekin eta Ramon Latasa Saria igandez egin zela-eta, zazpi egunetako bestak izan ditugu. Egunez izandako ekitaldietan jende ugari ibili da.

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUJAN

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontributarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegaitasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

IKAS

TURTE BERRIA 2009

2010

APP
informática
.com
DONEZTEBE

Zerbitzu tekniko eta konponketa

Nagusia, 4 • 31740 DONEZTEBE
Tel.: 948 451 752 - 609 418 097
zarbo@zarbo.net

ESKOLA ITZULERA



artesia

liburu eta materialen denda
materialak eta materialak
liburuak eta materialak
liburuak eta materialak

AXULAR

Fotokopiak, faxa, enkuadernazioak, plastifikazioak,
aldizkariak, prentsa, tabakoa eta
testu liburuak ekartzen dira enkarguz.



Santiago • ELIZONDO • Tel.: 948 581 507

FOTOKOPI
Azken belaunaldiak
makina digital berriak

- Inprimaketak, zuri beltzean
eta koloretan (katalogoak,
prezioen zinemak, bisita
txartelak...)

- Planen inprimaketak,
enkarnezak, tamaina
handitzeko eta murrizteko
egiteko

**Enpresendako
aurrekontuak**

Foruen karrera, 4 • BILBO
Tel.: / Faxa: 943 63 22 11
fotokopi@telefonica.net



ELKAR
liburu-denda

**testu liburuak
eskolako materiala**

aldizkariak eta prentsa

Estegara, 18 • Tel.: 948 630 691 • BERA



ENGLISH ACADEMY

2009 / 2010 kurtsorako
matrikulazio epea zabalik, plaza mugatuak:

IKASTURTE HASIERA: Irailak 14

University of Cambridge azterketara
aurkezteko prestakuntza.

ITZULPEN LANAK EGITEN DIRA

Elizagibela, 7 behe • 31740 DONEZTEBE
Tel.: 626 908 076 • angieacademy@hotmail.com

TOKI-ONA KIROLDEGIA

2009-2010
Kirol jardueren
programa.
Aipatu zaitez!

Izen-ematea:
irailaren 14tik 19ra



Irailak 8 inguruan
etxeetara udal kirol
programa guztia erekin
eskuprograma
banatuko da.



Informazioa: 948 630 215
bera@urdisl.com

LESAKAKO KIROLDEGIA

2009-2010
Kirol jardueren
programa.
Aipatu zaitez!

Izen-ematea:
irailaren 14tik aitzinera



Irailak 8 inguruan
etxeetara udal kirol
programa guztia erekin
eskuprograma
banatuko da.



Informazioa: 948 637 400
lesaka@urdisl.com

DONEZTEBE

UDALA → BERDINTASUNA

Kontziliazio Ituna lantzeko bilkura eginen da heldu den astelehenean udaletxean

Kontziliaziorako Herri Ituna programan parte hartu nahi du Udalak

TTIPI-TTAPA

Kontziliaziorako Herri Ituna sinatzeko programa abiatu du Udalak. Joan den ekainaren 1ean, INAI Nafarroako Berdintasunaren Institutuak paktua martxan paratzeko Udalaren eskara onartu zuen, egunerokoan, familian, lanean eta bizitzaren pertsonalean kontziliazioa bultzatzeko helburuarekin. Izan ere, gaur egun, oraindik ere agerikoak dira egunerokoan gizon eta emakumeek dituzten desberdintasunak. Itunarekin lana, aisialdia eta familia bizitzaren arteko kontziliazioa bilatu nahi da.

Ituna lortzeko bidean, lan batzordeak sortzea izanen da eman beharreko lehenbiziko pausoa, eta horretarako, herriko gizarte eragileei gonbidapena luzatu die Udalak. Bilkura astelehenean, irailak 7, eginen dute udaletxean, 16:30ean. Bi batzorde eratu nahi dira, instituzionala eta teknikoa, eta behin hori eginda, laguntza teknikoarekin, ituna diseinatzeko hasiko dira.

Web orri berria

Internetek duen garrantziaz jabetuta, Udalak web orria prestatzen ari da. Gisa guzietako informazioa zintzilikatu nahi du: turismoa, jarduera ekonomikoa, argazki galeria, berriak, herria eta herritarrak, Udalak... Eredua ikusgai dago: www.doneztebe.es.

Entrenatzaile berriak Errekan

Berrikuntza nabarmenekin hasiko du denboraldia Errekako seniorren taldeak: entrenatzaile berriekin. Urteetan talde nagusiko entrenatzailea izan den Txomin Mindegia agur erran die seniorrei eta bere ordeiz, Dani Urrotz gazteluarrak eta Iban Ezkurra donamariarrrak hartu dute lekukoa. Titikitatik Errekako jokalariek izandakoak dira biak, baina aitzineko denboraldian belauneko lesioak tarteko taldea utzi behar izan zuten. Sunbilla bizi den Juanjo Ramos baztandarraren laguntza izanen dute. Azken honen ere taldea aitzineko denboraldian utzi zuen.

MINDEGIA INFANTILEKIN

Txomin Mindegia, berriaz, harrobiarekin hasiko da eta infantil taldeko arduraduna izanen da, Pilar Olallarekin batera.



ARGAZKIA: ERREKA KIROL ELKARTEA

Udako Kirol Eskola 'arrakastatsua'

Antolatzaileak hagitx kontent gelditu dira Erreka Kirol Elkartearen ekimenez egin den Udako Kirol Eskolak izandako erantzunarekin. »Inoiz baino arrakastatsua goa» izan dela adierazi diote Ttipi-Ttapari. 43 haur eta gaztek parte hartu. Hala, hasiera batean, bi taldetan banatzea zen asmoa, baina harrera ona izan duenez, hiru multzotan banatuta ibili dira. Ibai Marizkurrena begiraleak kontent egon dela erran digu eta balorazio arront positiboa egin du aurtengo edizioaren inguruan.



ARGAZKIA: WWW.ERREKA.ORG

Errekako bandera Europako tontorrik altuenean

Europako gailurrik altuena den Elbrus mendia zapalduta gustura gelditu dira Erreka mendizale elkarteak bartz kide. Kaukaso aldean dagoen mendia 5.642 metroko altuera du eta Alejandro San Miguel Sanba, Igor Agesta, Joxerra Al-dabe, Tomas Sanz eta Roberto Ordax hantxe izan ziren uztaileko azken astean. Herritarrekin batera, Sakanako bi, eta Iruñeko eta Irungo bertze bina lagun ere joan ziren. Aitzinetik prestaketa batzuk egin ondotik, igoera egunean, goizaldean 2:00etan utzi zuten aterpea eta 11 orduren ondotik, gailurra 13:00etan zapaldu zuten. Nekatuta, eta zero azpitik 15 eta 20 gradu zirela, baina egindakoarekin kontent daude mendizaleak. Elbrusek Errekako bandera nolakoa den ere badaki dagoeneko.

BEINTZAKO OSTATUA
 ☎ 948 45 00 14
 orbel@albergoak-norrieta.com
 www.albergoak-norrieta.com
 11111 BIZTZA LABARRA
ORBELA

J. RAMOS
 zolak akutxilatzen eta
 barnizatzen ditud
 Sakelekoak: 637 836 023 - LESAKA

UDALA → LTD (LURREKO TELEBISTA DIGITALA)

Seinalea Zubietako errepikagailutik hartzen dutenek eskura dute LTDa

Horrela, herritar gehienek kanal digitalak ikus ditzakete

Joseba URROTZ

Honezkero gehienek jakinen badute ere, martxan dago Lurreko Telebista Digitala Zubietako errepikagailuan, alegia, antena horretatik seinalea hartzen dutenek kanal digitalak sin-tonizatzen ahal dituzte. Etxe gehienetan aipatu antenatik hartzen dute seinalea, eta beraz, herritar gehienek LTDaren bidez emititzen diren ka-teak ikus ditzakete.

Plan Munitipala abian

Akitu da Plan Munitipal berria egiteko lanen

adjudikazioa. Hiru enpre-sa aurkeztu ziren, eta udaleko zinegotzi, Na-sursako teknikari eta Na-farroako Gobernuako or-dezakariak erabaki zu-tenez, Jose Ignacio Arri-bas Etxebeste arkitektu-ak egingen du plan berria. Aitzineko arau subsi-diaroak zaharkituak gel-ditu dira, eta zorrotze-giakizateaz gain, hurren-go urteetan herria nola garatu eta beharrak ze-hazteko arauak berritze-ko beharra dago.

Dirulaguntzarik ez

Nafarroako Gobernuak nekazaritza azpie-giturak hobetzeko urte-ro ateratzen duen lagun-tza deialdian, ez du diru-rik eman eskatu ziren lanak egiteko. Hortaz, bertze baterako utzi be-harko dira asmo horiek.



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Bertze labaderoa konponduta

Krisialdirako prestatzen ari gara, eta argia mozten baldin badigute, garbitzeko makinak balioko ez dutenez, orain bigarren labaderoa konpondu dute enple-gu zerbitzuak ematen duen laguntzekin hartutako langileek: Ariztietako iturria-ren labaderoa, hain zuzen. Herri inguruan konpondu zena bezala, dotore gel-ditu da baserri inguruan dagoen hau ere. Dena den, aipatzekoa da, labadero hau herrian zegoela lehenago. Duela 60 bat urte herritik orain dagoen tokira eramane zen.

Mundua zure esku jartzen dugu



ARGENTINA

Irufetik taldeko irteera • 2009ko azaroaren 21etik abenduaren 8ra
Bisitak, gidariak, parkeetara sarrerak, mantenu-erdi

PSP **3.896€**
+ airepotu-tasa



**VIAJES
MARFIL
& VACACIONES**

Calles 11 Sur - 13-15 MURCIA
949 200 045 - carlos3@marfilviajes.com
Plaza Europa, 45 MURCIA
949 200 200 - gonzalo@marfilviajes.com
Parque Plaza, 13 BARCELONA
949 200 200 - barcelon@marfilviajes.com
LA MURCIA markatutako zerbitzu COPACONILLA
949 200 200/949 200 200/949 200 200
Carretera de la Paz, 3 TUDERA
949 200 410 - tudera@marfilviajes.com

ITUREN

OSPAKIZUNAK → JOALDUNAK

Dena prest dago irailaren 19an eginen den Joaldunen Egunerako

Bazkarirako txartelak herriko denda eta ostatuan salgai daude

Arkaitz MINDEGIA

Joaldunak eta Ibin-tza Kultur Taldea lanean hasiak dira dagoeneko, irailaren 19an, larunbatarekin, ospatuko den Joaldunen Egunerako. Egun osoko egitaraua ere zehaztu dute:

Goizean 9:30 aldera plazan elkartu eta Ameztiara joanen dira joaldun, trikitilari eta herritarrak. Sotilenea, Xunbilenea, Amairun borda, Altxuneko borda eta Zubialdeko baserrietara bisita eginen dute eta etxekoek pintxo eta tragoxka goxoekin hartuko dituzte, urtero bezela. 13:00etan plazan herri-kirol erakustaldia izanen da eta bertsolariak ere ariko dira. 14:30ean bazkaria izanen da Herriko Etxeko



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joaldunen Eguna 25 urte bete zituen iaz eta joaldun andana elkartu zen.

Ganbaran eta ondotik dantzaldia izanen da FRANTZISKO akordeoi-lariarekin.

Bazkarirako txartelak herriko ostatu eta dendetan salgai daude.

Ander Erasun

Herriz-herriko beste-kin batera, lanean ibili da Ander Erasun auriztarra. Bestetako egitarauetan aizkora apustu eta ekitaldi ugari ikusi ditugu eta erakustal-

di aunitz eman ditu Anderrek bertze aizkolariekin batera.

Horrez gain, ezin ahanzi, uztailearen 24an Azpeitian jokatu zen 23 urtez beheitiko Urrezko Aizkolarien finalean parte hartu zuela. Erasunek ezin izan zuen Atutxa II.a menperatu. Bizkaitarrak 20 minutu eta 44 segundo behar izan zituen lanak akizteko eta Aurtizkoak 23

minutu eta 2 segundo. Zorionak, hala ere, eta segi horrela!

Ikasturte hasiera

A/H1N1 gripearri aitzin egiteko Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilariaren erabakiz, ikasturtea mailaka hasiko da Nafarroan. Iturengo eskolan ere, tti-kienak irailaren 3an eta nagusiak hilaren 9an hasiko dira.

GIZARTEA

Etorkinak integratzeko subentzioak


TTIPI-TTAPA

Etorkinen integratzeko zuzendutako ekimenak landu ditzaten 1.442.817€ko dirulaguntza emanen die Nafarroako Gobernuak udal erakundeei. Eskualdean, **Baztango Udalak** 22.425,34 euro hartuko ditu: 14.882,90 euro gizarte zerbitzuetarako, 4.788,97 sentzibilizaziorako, 1.900€ parte-hartzerako eta 853,47 haur eta gazteei zuzendutako programetarako; **Malerrekako Mankomunitateak** 20.798,11€ jasoko ditu: 15.535 Gizarte Zerbitzuetarako, 2.347,05€ haur eta gazteen programetarako eta bertze 1.277,06 euro sentzibilizaziorako; **Leitzaldeko Mankomunitateak** 9.481,35€ jasoko ditu, 5.531,35€ gizarte zerbitzuetarako eta 3.950 euro parte-hartzerako. **Bortzirietako Mankomunitateak**, azkenik, 27.214,56€ jasoko ditu, 15.815,36€ gizarte zerbitzuetarako, 5.088,28€ sentzibilizazioa lantzeko, 3.556,14 haur eta gazteen kanpainetarako eta 460,99 emakumeentzako.



BORTZIRI
UNIOI ANAIK
Sukalderako altzariak

Bereko etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511



ZUBIETA

KIROLA → OSPAKIZUNAK

Merezitako omenaldia jasoko du Mindegia irailaren 12an

44 aizkolari eta 7 harri-jasotzaile bilduko dira herriko plazan

Fermin ETXEKOLONEA

60 urterekin eta sasoi betean. Aizkolari onenetakoa dela esatea ere ez da gehiegizkoa. Eta aurren 60 urte bete dituelako eta bere ibilbidea go-goan, omenaldia eskainiko dio herriak irailaren 12an, larunbatarekin. 10:30ean meza izanen

da Mindegia omenez eta 11:00etan herri kirol jaialdi haundia hasiko da: 44 aizkolari eta 7 harri-jasotzailek erakustaldia eskainiko dute.

Aizkolari hauek ariko dira: Donato Larretxea, Angel Arrospide, Floren Nazabal, Jose Mari Olasagasti, Juan Jose Lopez, Luis Txapartegi, Unai Otaño, Daniel Vicente, Antonio Senosiain, Patxi Mindegia, Arria V.a, Jose Angel Zubiaiga, Luis Mari Belarra, Joseba Otaegi, Jon Rekon-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mikel Mindegia aizkora eskuan.

do, Xabier Mindegia, Atutxa II.a, Arkaitz Jauregi, Mugertza II.a, Raul Castro, Jose Juan Barbarena, Antonio Jaunarena, Jose Antonio Loiarde, Felix Etxeberria, Manolo Kañamare, Joxe Ugarteburu, Mugertza I.a, Jose Etxebeste, Gabriel Saralegi, Jesus Agite, Jose Aierbe, Jose Mari Mendizabal, Patxi Astibia, Arria II.a, Arria III.a,

Ander Erasun, Oihan Larretxea, Ruben Saralegi, Arkaitz Olano, Julen Kañamare, Rodriguez II.a, Kenari Erasun, Iker Vicente eta Mikel Zabaleta. Eta **harri-jasotzaileak** hauek: Saralegi, Iñaki eta Inaxio Perurena, Izeta I.a, Izeta II.a, Izeta IV.a eta Josetxo Urrutia.

Lizaso eta Telleria bertsolariak ere euren tartea izanen dituzte.

Bestalde, herritarren izenean, aureskua dantzatuko zaio Mindegia, eta Udalak orogarria ere emanen dio.

Herri kirol saioaren ondoren, 14:30ean, herri bazkaria izanen da. Sarrerak udaletxean daude salgai, eta, aipatu, herritarrek lehenasuna izanen dutela. Bazkalondoan, dantzaldia izanen da MODESTOrekin.

LEGASA

ERASOAK →

Malerrekako Gazte Asanbladaren txosnaren aurkako pintadak Legasan

Abuztuaren 22ko arratsean egin zituzten

TTIPI-TTAPA

Eskualdean zein Euskal Herriko bertze tokietan ugaritzen ari dira azken aldian pintadak. Eskualdeari dagokionean, azkenak Legasan egingakoak izan dira.

Urtean zehar antolatzen dituen gastuei aitzin egiteko, Malerrekako Gazte Asanbladak txosna paratu zuen Legasan, San Agustin besiten atarian. Bada, bestak hasi baino lehenago, abuztuaren 22ko arratsean, pintadekin azaldu zen txosna. Norbait barrenean sartu eta pintura gorritz hainbat idatzi egin zituen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Idatzi hauek agertu dira Malerrekako Gazte Asanbladaren txosnan.

Diana edo gurutzea marrazteaz gain, esaldi hauek idatzi zituen: *Hemen ez, alde hemendik, puta semeak eta Juan debalde se murio*. Txosnako pegatina eta kartelak gorritz pintatu zituen eta zaborra ere sartu zuen barrenean.

Gazte Asanbladak gertaera salatu, eta «pintadak egin zituztenei eta berdin pentsatzen dutenei» mezu argia luzatu die: «ez gaitu ezerk geldituko. Bide onean goazela badakigu, herri gurekin dago eta honek edozein erasori aurre egite-

ko indarra ematen digu». Gaineratu duenez, «gure herrien alde elkarrekin lan egin eta eskubide urraketa guztiak borrokatzen jarraituko dugu, Malerrekako eta Nafarroaren alde lan egiten, Euskal Herri berri baten bidean lan egiten».

OITZ

BESTAK → AMABIRJIN BESTAK IRAILAREN 4TIK 8RA

Igandean pilota partidak eta aizkora apustua izanen dira goiz arratsaldez

Astearteko herri bazkarian Sustrai Colina eta Julio Soto ariko dira

ORTZIRALA 4

20:00etan altxaferoa beste hasiera emateko. **Ondotik** Doneztebeko txistulariak herrian barna. **21:00etan** Baztan Zopak Herriko Ostatuan. **Gauetz** dantzaldia AZPEITIA-AZKOITIA taldearekin.

LARUNBATA 5

11:00etan gaztetxoentxapelketako laxoa partida. **17:00etan** haurendako jokoak plazan. **17:00etan** herriko artisauen erakusketa. **Ondotik** haur eta helduentzako txokolatea. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

IGANDEA 6

11:00etan afizionatuen arteko pilota partidak. **17:30ean** aizkolariak: Ander Erasun (Aurtitz), Oihan Larretxea (Bera), Raul Kastro (Urrotz) eta Ruben Saralegi (Leitza). **19:00etan** herritarren arteko VI. Patata Tortilla Lehiaketa. **Ondotik** tortilla, xingarra eta txistorrajatea. **Arratsalde eta gauetz** dantzaldia FRANCISCO SANTXOTENA akordeoilariarekin.

ASTELEHENA 7

11:00etan mus txapelketa elkartean. **Arratsaldez** I. Ajoarriero Lehiaketa. **Arratsaldez** jokoak herritarren artean. **Arratsalde eta gauetz** dantzaldia JEXUX MARI akordeoilariarekin.

ASTEARTEA 8

11:00etan Meza Nagusia. **Ondotik** luntxa Herriko Ostatuan. **14:00-**



ARGAZKIAK: JAIONE

Aurten ere ez da umorerik faltako bestetan.

etan herri bazkaria, Sustrai Colina eta Julio Soto bertsolariekin. **17:00etan** toka eta so-

katira txapelketa herritarren artean. **Arratsalde eta gauetz** dantzaldia JEXUX MARI akordeoilariarekin. **Ondotik** beste akabera emateko kalejira eta GAIXOANI.

deoilariarekin. **Ondotik** beste akabera emateko kalejira eta GAIXOANI.



Oizko Udalak
besta zoriontsuak opa dizkie
herritar eta bisitari guziei

ONGI PASA
BESTAK!!!

EZPELURA ITURGINTZA S.L.

Kalefakzioa • Gasa
Elektrizitatea • Eguzki plakak
Zoru bero emailen

Tfnoa.: 606 337 427 • OITZ (Nafarroa)

BESTAK → LOKARIKO AMABIRJIN BESTAK IRAILAREN 4TIK 8RA

Larunbatean Mindegia eta Nazabalen artean aizkora apostua jokatu da

Astearteko goizean aizkora apustua izanen da eta pilota partida arratsaldean

rrian barna. **11:00etan** pasta lehiaketa. **Ondotik** dastaketa. **Goiz eta arratsaldean** umeen parkea, karts eta gaztelu puzgarriak. **18:00etan** Leitzako dantzarien saioa. **Arratsaldean eta gauez** dantzaldia MO-DESTOrekin.

ORTZIRALA 4

19:00etan suziak herriko festei hasiera emateko. **Ondotik** kalejira herriko trikitilariekin. **Gauez** dantzaldia TRAKETS taldearekin.

LARUNBATA 5

9:00etan txistulariak herrian barna. **14:00etan** herri bazkaria KUPELA taldearekin. **18:30ean** aizkora apustua Mindegia eta Nazabalen artean. **Arratsaldean eta gauez** dantzaldia TRAKETS taldearekin.

IGANDEA 6

9:00etan txistulariak he-

ASTELEHENA 7

9:00etan txistulariak herrian barna. **11:00etan** herriko mus txapelketa. Sariak: bikote txapeldunarentzat bildots bana, bigarrenarentzat bina txuleta eta bina botil ardo eta hirugarrenarentzat bina txuleta. **18:00etan** pilota partidak: Ollolandilibar / Idoate-Gallarraga eta Iraola-Otxotorena / Jaunarena-Azanza. **Arratsaldean eta gauez** dantzaldia MODESTO akordeolariarekin.

ASTEARTEA 8

9:00etan txistulariak herrian barna. **11:00etan**



Meza Nagusia. **13:00etan** aizkora apustua: Erasun-Oihan Larretxea eta Saralegi eta Olano. **18:00etan** pilota partidak: Garralda-Jauregi / Yoldi-Iriarte eta Tainta-Girones / Bendorio-Linzoin. **Arratsaldean eta gauez** dantzaldia MO-DESTOrekin.

ARGAZKIAK: M. TELLETXEA
Patata tortilla lehiaketaren ordez, aurten pastarena egingen da. Herri kirolak, ordea, ez dira faltako.



APARAN, S.A.

ERIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagaiak
- K/I mobleak, esku-erremintak, etab.



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Eratsungo Udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue


Zalain
jateetxea - hostala

14 logela bainu eta TBrekin
Zalain auzoa z/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

EZKURRA

EHIZA → PRESTAKETA LANETAN

Jose Zestau eta Fidel Gomez dira ehiztarien juntako kide berriak

25. postua tokiz aldatuko da Leitzako ehiztariak kexu direlako

Fernando ETXEBERRIA

Ehiztariak burubela-
rri dabilta prestaketa
lanetan, sasoia ere ai-
legatzear delako. Joan
den uztailaren 26an ur-
teroko bilkura egin zu-
ten Mosaiko aterpean
eta 38 bazkide bildu zi-
ren. Hainbat gai izan
zituzten aztergai, eta
horien artean, 2008-
2009 denboraldiko
kontuak aurkeztu zitu-
en lehendakariak.
Onatuak izan ziren.

Denboraldi honi be-
gira izanen diren berri-
kuntzen artean, bat da
aipagarriena. Juntan bi
kide berri sartu direla,
alegia: Jose Zestau eta
Fidel Gomez.

LEITZAKO EHIZTARIEKIN GORABEHERAK

Leitzako ehiztarie-
kin izandako bilerak ere
nabarmentzekoak di-
ra. Izan ere, Leitzako
ehiztariak kexu azaldu
dira 25. postuak inter-
ferentziak eragiten

dizkielako. Kontu ho-
nen inguruan, hainbat
bilera egin ditu lehen-
dakariak leitzarrekina,
eta azkenean, 25. pos-
tua tokiz aldatzea era-
baki da.

GARBITASUNAREN GARRANTZIA

Ehiza garaia amai-
tzearekin batera, pos-
tuak garbitzea ezinbes-
tekoa dela ere gogora-
tu zuten ehiztariak
batzarrean, eta auzo-
lanerako egunak ere
finkatu zituzten.

Ehiza larriko inguru-
ak zein diren eta oho-
lak paratzearen beha-
rraz ere mintzatu ziren
uztailako bilera horre-
tan.

KULTURA → LIBURUA

Etxe, baserri eta borden liburua kalean

Hiru urteko lanaren ondotik kale-
an da Ezkurrako etxe, baserri eta bor-
den argazki bilketa liburua. Zutik,
egoera txarrean edo desagertuta dau-
den baserri, borda eta etxeak ageri
dira, bakoitza bere izenarekin. Fer-
nando Etxeberria eta Juan Jesus Su-
kuntzaren lana da eta helburua exis-
titu zirela nonbait jasotzea izan da.

Hiru atal nagusi ditu liburua: lehe-
nengoan herriko historiaren laburpe-

na ageri da; bigarrean probintziako
eta herriko artxiboetako dokumentu
batzuk ageri dira; eta hirugarrenean
eraikinen argazkiak eta izenak ikus dai-
tezke, eta zenbaiten historia ere bai.

Liburuaz gain, DVD bat ere argi-
taratu dute, argazkiz hornitua. Egile-
en nahia, liburua herriar guztien es-
kura ailegatzea litzateke, baina 70 ale
baino ez dira editatu gastu haundia
delako.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Ehiztariak uztailaren 26ko bileran.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Giro ederrean joan dira festak

Herriko eta kanpoko jendearen parte-hartzearekin joan ziren Amabirjin festak.
Ohi bezala, aizkora apustuak, pilota partidak eta herri-kirolak izan ziren kan-
potik jende gehien erakarri duten ekitaldiak. Gainera, aurtun eguraldia ere la-
gun izan genuen, eta tenperatura altuak ere ez zituen gogogabetu dantzari fi-
nak. Orokorrean, giroa bikaina izan zen, eta ekitaldi guztien artean, herri kirol-
ak eta 11 bikotek parte hartu zuten mus txapelketa izan ziren aipagarrienak.
Azken honetan, Barrankako Jose Luis eta Toki Alaiko Migel izan ziren txapel-
dunak. Argazkian ageri diren 18 lehiakide ausart hauek herri-kiroletan aritu zi-
ren, eta ez dago adierazi beharrik zein izan ziren txapelak.



Argazkian ageri den hauxe
da Fernando Etxeberria eta
Juan Jesus Sukuntzak
egindako liburuaren azala

suteia
instalazioak

igogailuen instalazioa

Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810
suteia@suteia.com



Gremio guziak
koordinatuz eta
proiektuaren ardur
haruz, zure igogailu
instalatzeko dizugu

GOIZUETA

FESTAK → IGAROTAKOAREN ERREPASOA

Urteurrena, giroa, berrikuntzak, glamourra...

Peña eta bere fundatzaileak izan dira festa eder batzuen ardatz

Esteban AROTZENA

Aurtengo Amabirjine-tako zenbait une betirako geldituko dira goizuetar askoren bihotzetan eta erretinan. «Momentiko» horien protagonista nagusiak, jakina, Umore Onaren fundatzaileak izan ziren. Ahaztezinak beraiek botatako itxafe-roa, eta Peñaren Egune-ko diana, pilota plazako omenaldi ekitaldia eta ilunabarrean Ganddegiko atarian Luis Elizegi buru zuen txarangak peñakide beteranoen eskutik jasotako agurra.

GIROA-BERRIKUNTZAK

Festa giroa, bestalde, aparta izan da aurtun ere. Igande eta astelehen arratseko lasaitasunaren ondoren, asteartean kaleak, tabernak eta txosnak bete egin ziren berri-ostiralean eta larunbatean bezalaxe. Aipagarria, gainera, berrikuntzek izan duten arrakasta. Astearte arratsean gainezka bete zen plaza festei bukaera ofiziala emateko lehenbiziko aldiz antolatutako ekitaldian. Eta Peñaren historia irudikatzen zuen 600 argazkiko erakusketak ehunka lagunen bisitajaso zuen.

GLAMOURRA

Edozein jaialdi edo goi mailako ebentok pertsonaia ezagunak



ARGAZKIAK: ENERITZ ETA AITOR AROTZENA

Festetako momenturik gogoangarrien errepasoa.

erakartzea izaten du helburu. Bagure festek lortu dute hori ere, oheratzeko presarik gabe

etorritako izarrak ikus baititezkeen herrian asteartearekin, 18an: goi-goi mailako pilotariak

eta harri-jasotzaileak, tourrean etapak irabazitako txirrindulariak eta abar.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

edredoi fundak
albornozak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

Mantetan eskaintzak

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

ARESO

KIROLA → MENDIA

Bigarren Mendi Martxa egingen da igandean

Itzulia
bukatutakoan
paella jatea
izanen da

Juana Mari SAIZAR

Igande honetan, irailak 6, bigarren Mendi Martxa egingo da Udalak eta kirol koordinatzaileak antolatuta. Iaz oso ongi ateratu zen, eta aurten ere hala espero da.

26 kilometroko ibilbidea izanen dute mendizaleek aurretik eta goizean 8:00etan abiatuko da plazatik. Aipatu, aldi honetan, bokatak banatu beharrean, paella jana egingo dela bazkaltzeko, mendi itzulia bukatzen denean.

Martxari buruzko xehetasun gehiago kirolen atalean aurkituko dituzue, 39. orrialdean.

San Migelera erromesaldia

Egun berean, igandean, San Migelera erromesaldia egitekoa da, Larraungo Artzapezgoak antolatuta. Hala, herriko gurutzeak bisita bueltatuko dio San Migeli.

Badira 17 urte huts egin gabe parte hartzen duela herriko gurutzeak erromesaldi honetan. Herritarrek guardaetxetik San Migeleraingo ibilbidea egiten dute gurutzea eramanez, beste 40 parrokiekin batera.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Festa parte-hartzaileak

Festen biharamuna pasa da jada, baina oroitzapen onekin geratu gara herritar guztiak, jendearen parte-hartzea haundia eta ona izan baita. Azken urteetako egitarau berdintsua izan da, baina berrikuntzen artean, ume eta gaztetxoek eginitako ingurutzua izan da aipagarriena. Helburua Aresoko ingurutzua ez galtzea da, ahal bezain jende gehienek jakitea eta dantzatzea. Elizkizunei dagokienez, esan, beharbada Amabirjin Egunkoa aspaldian ikusitako jendetsuenetakoa izan zela. Urtero bezala, dantzariak arkua egin zuten Eliza sarreran. Haurren artean txikiak hiru urtekoak ziren eta zaharrenak 13koak.



Eskola eta Pake Toki berrituak

Eskola eta Pake Toki Elkartearen aurrealdeak konpontzen ari dira eta ia bukatuxea dago. Aurreko aldea berrituta eta margotuta ikus daiteke dagoeneko.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELEK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

OSPAKIZUNAK → AISIALDIA

Nafarroako I. Talo Txapelketa jokatu da igandeko Taloaren Egunean

Erakusketak, tailerrak, herri kirol saioak... denetarik izanen da

TTIPI-TTAPA

Plazaola Partzuergo Turistikoak antolatuta, beste urte batez, Taloaren Eguna egingen da igande honetan, irailak 6. Aurreko edizioetako emaitza ona ikusita, aurreten ere egitarau bete-betea prestatu dute. Tartean, zenbait berrikuntza ere izanen dira.

Merkatuaren irekiera 10:00etan

- Leitzako talogileak: Villabona eta Saralegi.
- Artisauak: sagardoa, eztia, txistorra, gazta, zur lanak...
- Taloa egiteko tailerra.
- Baserriko tresneriaren erakusketa.
- Arto zuriketaren erakusketa.
- Baserriko animalien erakusketa.
- Haurrentzat gurdi ibilaldia.

Ekintza gastronomikoak: 11:00-13:30

- Nafarroako I. Talo Lehiaketa. Lehenengo hiru sailkatuentzat sariak banatuko dira herri kirolak bukatu ondok.

- Taloarekin egindako plateren erakusketa. Zonaldeko jatetxe eta tabernek egindakoak izanen dira.
- 4-14 urte arteko gaztetxoentzat taloa egiten ikasteko tailerra.

Herri kirol saioak 12:00etan

- Euskal Herriko Aizkolari Gazteen Txapelketa.

- Nafarroako Txingamendak Txapelketa.
- Euskal Herriko Koxkor Biltze Txapelketa.

Hasi da Pilota Txapelketa

Pilotazaleek hitzordu garrantzitsuak izanen dituzte hurrengo astebururuetan Amaz-

bal pilotalekuan, abian baita Aurrera Pilota Eskolak antolatutako V. Pilota Txapelketa. Joan den ostiralean hasi eta igandera bitarte, final-laurdenak jokatu zituzten. Ostiral, larunbat eta igande honetan, hila 4, 5 eta 6, finalerdia jokatu dituzte eta finalak, berriz, irailaren 13an, igandearekin.

Bitarte horretan Euskal Herriko eta Errioxako 80 bat pilotari pasako dira Amazabal frontoitik, alebinak, infantilak, kadeteak, juniorak eta nagusiak. Kirolariak Aurrera Pilota Eskolak aukeratutakoak dira.

Zaldi Eguna bertan behera

Aurrera Perra Taldearen ekimenez, irailaren 12an, larunbatekin, egitekoa zen Zaldi Eguna bertan behera gelditu da, tokiarekin arazoak egon direlako.

VI. Mendi Txirrindula Martxa

Bizikletan ibiltzea gogoko dutenek aukera ezinhobea izanen dute irailaren 20an. Egun horretan, Plazaolan barna pasako den Mendi Txirrindula Martxaren VI. edizioa egingen da. Luzera diferentia izanen duten proposamenak egingen dira: Andoain eta Lekunberri arteko 40 kilometroak, Leiza eta Lekunberri arteko 15 kilometroak eta haurrentzat pailazoekin batera egiteko lau kilometroko ibilbidea.

Egun berean, bestalde, maratoi erdia ere egingen da, 21 kilometroko proba lehiakorra.



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

Jon Kanflanka hirugarren Euskadiko Segatxo Txapelketan

Uda honetan egindako lana kontuan hartuta, gustura egoteko moduan da Jon Kanflanka segalari gaztea. Beste saiorik jokatu gabe, hirugarren postua eskuratu baitu Euskadiko Segatxo Txapelketan. Abuztuaren 9an Aizarnan (Gipuzkoa) egin zen 25. Euskadiko Segatxo Txapelketan, beste lau segalarirekin batera, ordubeteko lana egin behar izan zuen, eta sei sail ebaki. Hirugarren posturako lehia estua izan zen. Izan ere, laugarren saila amaituta, Arteaga Kanflankaren aitzinetik zen 40 segundoko aldearekin, baina Kanflankak sasoiko amaitu zuen txapelketa, eta lehen aldiz podiuma zapaldu zuen, hirugarren sailkatuta.

EGUTEGIAK eta BISITA TXARTELAK

Kartulina berezia 300gr. - koloretan bi aldeetatik - Distira akabera

	100	500	1000
Egutegiak-Txartelak	70€	35€	150€

Kulturakal Andutzeta, 12 - 31760 Eibar - Tel 948 635 458 - kulturakal@ttipi.net

Ez hutsik egin eskaintza berezi hau!

BAZTAN

BESTAK → ELBETEKOK IRAILAREN 11TIK 15ERA

Txopo goratzearen usadioari eutsiko diote Elbeten

Baztan Zopak eta zikiro jaterako txartelak ostatuan salgai

1:00etatik aitzinera dantzaldia OROTS taldearekin.

IGANDEA 13
Zozketa Eguna

ORTZIRALA 11
Bezpera

18:00etan suziria eta ezkil-jotzea. **21:00etan** Herriko Ostatuan Baztan Zopak (txartelak ostatueta salgai). **00:00etan** txopo goratzea. **Ondotik** dantzaldia FRANTZISKO akordeoi-lariarekin.

9:00etan argisoinuak. **18:00etan** herri-kirol ikuskizuna plazan. **19:00etan** bat-bateko mus eta partxis txapelketa. **19:00etatik 22:00-etara** dantzaldia FRANTZISKO akordeoi-lariarekin. **22:00etan** zozketa: 4 lagunendako afaria, argazki makina digitala edo GPSa eta 2 gasna.

LARUNBATA 12
Zikiro Egune

9:00etan argisoinuak. **14:00etan** zikiro jatea JOXE ANJELe alaituta (txartelak Elbeteko ostatuan eta Elizondoko Karrika ostatuan salgai). **Ondotik** makil-tira txapelketa. **20:00etatik 22:00etara** eta

ASTELEHENA 14
Gurutze Sainduaren eta Haurren Eguna

9:00etan argisoinuak. **11:30ean** Meza Nagusia. **Ondotik** Mutildantzak plazan. **Segidan** luntxa Ostatuan. **14:00etan** haurrendako bazkaria frontoian.



ARGAZKIAK: MARIA

Urteroko ekitaldi bihurtu dira txopo goratzea, mus eta partxis txapelketa eta zikiro jatea

17:00etan AZIKA taldearen txotxongilo ikuskizuna: *Barne Iluna*. **18:00etan** bonba japoniarrek plazan. **18:30ean** txokolatada. **19:00etatik 21:00etara** dantzaldia trikitilariekin.

OHARRA

Zikiro jatera joan behar duenak bakoitzak bere platera, tenedorea eta nabala eramane beharko ditu.

ASTEARTEA 15
Herritarren Eguna

9:00etan argisoinuak. **14:00etan** herri-bazkaria, trikitilariekin. **12:00etan** GAIXOA NI.

ONCE PASA BESTAK!

ELBETEKOK POSADA

Alegria berrituaz gure etxearen

Eguneko menua
Aste honetarako karta
Enpresa oforduak
Familia bikurak
Bataioa ...

Elizondoko 1 - 31700 Elizondo (Navarra)
Tel: 948 580 313 - 948 580 313
info@posadaelbete.com
www.posadaelbete.com

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

egoi bardot obregozo arkitektoa

679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 iñigo · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

ttipi-ttapa

info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

Gure Haragia
Nuestra Carne

AZPIEGITURAK → IBAIAK

Lekarozko presarekin batera zentrala ere desagertu da

Elbeteko presa
botatzearen
kontra daude
herritarrak

Maite OTEIZA

Kantauriko Ur Konfederazioak bultzatuta, Baztan Ibaiko zenbait presa desagertzeko planak bertzelako ondorioak dakartzala erran daiteke. Lehenbiziko adibidea Lekarozko presan ikusteko parada izan dugu hurbildutako hainbete baztandarrok.

Hasiera batean, presa suntsitu zuten, eta hortik egun batzuetarat, ondoan zegoen komentuko zentrala botatzen hasi ziren. Eraikina eraisten ari ziren neurrian, ubidea, etxe azpiko arkua eta abar bistan gelditu ziren. Irudi hau Baztango historiaren zati bat da, eta batez ere Lekarozkoa. Elbeten ere eztabaidak

eragin ditu Errotaberriko presa botatzeko Ur Konfederazioaren asmoak.

Erabakiaren kontra 340 sinadura inguru bildu dituzte, presa arraintzat

ez dela oztopoa erranez eta bere ondare-balioa defendatuz.



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Makina bat Lekarozko Kolegioaren zentrala botatzen



ARGAZKIA: ARANTXA GAMIO

Pantxoa eta Peiorekin Zigan

Iraila ailegatzearekin batera, gehienentzat oporrak akitu badira ere, besta giroan pasa dugu uda. Herriz-herri hainbat ekitaldi izan dira eta horietako aunitz arrakastatsuak. Zigako Sanlorentzoetan, erraterako, herriko besten egun haundian, Pantxoa eta Peiok kantaldia eskaini zuten plazan. Aitzineko egunetako eguraldi txarrak beldurra eragin bazuen ere, giroak ez zuen hutsik egin. Eguraldia lagun, jende andana bildu zen plazan, inguruko larrain eta Elizako eskaileretan betiko eta oraingo kantuak kantatzera. Lerro hauen bidez antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete egun hartan Zigara hurbildu ziren guziei. Argazkia kantaldiaren ondotik herriko gazteek Pantxoa eta Peiorekin ateratakoa da.



HERIOTZA

Tiburtzio ALMENAR

Herriarentzat
hainbete
lan egindako
gizona

Nork ez zuen ezagutzen Iruritako Almenar, Baztanen eta Baztandik kanpo? Bidaia antolatzailea (Andorra, Lourdes, Portugal, Galizia...), garai batean bandoa botatzen zuena, txistulari dantzariekin, barberoa, etxetresna saltzailea, C.C Iruritako presidentea, Herriko Adoración Nocturnakoa, Gartzain eta Iruritako postaria... Herriko hainbete gauza eta ekintzen bultzatzailea, Andueza Xatur *El mudo* ren imitatzailearik hobereña hil egin da. Salvador Martin Lekarozko mediku izan zenak ere, *Un viaje al Valle del Baztan liburuan*, gizon haundia zela dio. Goian Bego.

**H. LOPEZ**
FONTANERÍA • ITURGINTZA



Izkinetako manparak Plater-manparak Bainuontziko manparak

Komuneko moble eta manparetan promozioak

Santiago 93, Elizondo • Tel. 948 452 126

www.honestolopez.com

BAZTAN

OSPAKIZUNA → AURTENGOA HIRUGARREN ALDIA

Txalapartarien besta eginen da igande honetan Izpegiko lepoan

Baztan eta Baigorriko txalapartariak antolatutako ekimena da

TTIPI-TTAPA

Baztango eta Baigorri aldeko txalapartariak antolatuta, txalapartarien besta eginen da, aurtengo hirugarren aldiz, igande honetan, irailak 6. Baztan eta Baigorri inguruko txalapartariak elkartzeko helburuarekin, lagunartean sortu zen ideia izan zen, eta duela hiru urte, erdi bidean egin zuten hitzordua: Izpegiko lepoan. Geroztik ez du hutsik egin ospakizunak.

Paxkal Indo antolatzaileak **TTIPI-TTAPA**ri adierazi dionez, ez dute egitarau finkorik zehaztu, eta txalaparta horrela ulertzen dutelako librean utzi nahi izan dute eguna: «guk eguna eta

tokia emanen dizkiogu jendeari». Dena den, Izpegin, 9:00etan egin dute hitzordua. Goizean mendian ibiliko dira eta mendi tontor batean txalaparta bat ere kokatuko dute. Eguerdian, 14:00etan Izpegira bueltatuko dira eta Baigorriko Ikastolaren alde «sos batzuk biltzeko», taloak jateko aukera izanen da. Arratsaldean txalaparta doinuak nagusituko dira.

Aurtengo berrikuntza Parisko talde baten bitartez izanen da. Txalapartarien lekukotzak hartzeko asmo omen dute eta baliteke Izpegin grabaketak egitea.

EGITARAUA

Goizean mendian ibiliko dira eta eguerdian Izpegira bueltatuko dira. Arratsaldean txalaparta doinuak nagusituko dira.



ARGAZKIAK ETA TESTUA: MAITE OTEIZA

Aurkikuntza berriak Amaiurko gazteluan

Laugarren urtez, Aranzadi Zientzia Elkartek Amaiurko gazteluan indusketak egin ditu aurtengo ere. Urte urte, gazteluko harresiak eta barneko bizitzari buruzko elementu berriak agertzen ari dira eta aldi honetan ere hala izan da. Amaiurko besten bezperan, horien berri eman zuten Aranzadi Elkarteko idazkari nagusia den Juantxo Agirrek, Virginia Aleman alkateak, Bizente Arozena Udalbideko ordezkariak, eta Julian Rekalde Amaiurko alkateak komunikabide eta herritarren aitzinean. Uda honetako lanekin, egitura arkitektonikoa eta espazioaren banaketa aztertzeaz gain –eskailerak, kanpokaldeko harresiaren egunerokoa eremua... –, XIV. eta XV. mendeen artean erabili ziren hainbat objektu aurkitu dituzte: animalia batzuen hezur arrastoak, etxeko tresnak, gerrikoen belarriak... Militarrek erabili zituzten ezpata eta gezi puntuen arrastoak ere topatu dituzte, eta urrezko txanponak ere bai.

Kudeatzaile berria Baztandarra Kooperatiban

Azpilketako **Agurtzane Mariezkurrena** da Kooperatibako kudeatzaile berria. Abuztuaren 12an ekin zion bere ibilbide berriari 25 urte inguru dituen gazteak. Orain arte Xabier Ripak izan duen kargurako bertze bi hautagai ere baziren, baina az-

kenean, Mariezkurrenak hartu du ardura.

IBILBIDE LUZEA DUEN KOOPERATIBA

1977an sortu zen Kooperatiba. Erratzun hasi arren, 1982az geroztik, Arizkun du egoitza, Ordoki industrialdean.

300 bat bazkide ditu eta hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: pentsua, ongariak, gasolioa, gasnategia... Azken hau, hain zuzen, joan den urtean sortu zuten eta horrekin batera Baztangoa izeneko gazta ere merkaturatzeari ekin zioten.

Alai oinetakoak

art, biloway, CAMPER, Pepe Jeans

Santiago, 47 - Elizondo - tel. 948 452 457

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte karkitza
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853



UTZITAKO ARGAZKIA

Foru Plazari itxura hau ematea proposatu dute lehiaketako arkitektu irabazleek.

UDALA → AZPIEGITURA LANAK

Foru Plazako lehiaketaren sariak hilabete honetan banatuko dira

Iruñeko arkitektu talde batek egindako 'Lurra BZT' proposamenak irabazi du

TTIPI-TTAPA

Udalak hilabete honetan banatuko ditu Elizondoko Foru Plaza beritzeko proiektu irabazleen sariak, eta aldi berean, osoko bilkuran ere hil honetan aurkeztuko da egitasmoa, onespene emateko.

Ideien lehiaketara aurkeztutako 44 proiektuen artean, bereziki horretarako sortutako epaimahaiak *Lurra BZT* izeneko aukeratu du. Iruñeko Koldo Fdez. Gaztelu, Corina Blanco Rivas eta Enrique Jerez Abajorena da lana. Epaimahaiaren arabera, au-



UTZITAKO ARGAZKIA

Foru Plazak hartuko duen itxura.

keratutakoek «trebezia handia erakutsi dute arkitektura eta herriko eremuak lantzean» eta «egin beharreko bi eraikinen dako hizkera bera hautatzeak batasun handia eman diot multzoari. Orobat, gure aburuz, egokia da eraikinen eta sortzen diren eremu libreko arteko eskala». Lehiaketa irabazita, 6.000 euroko saria hartuko dute *Lurra BZT*ren egileek.

Bigarren saria, aldiz, proiektu guztiak jendaurrean paratu zirenean,

herritarren botorik gehien bildu zituen *Billantziko-tik zortzikora* proposamenarentzat izan da. 83 baztandarrek eman zuten proiektu honen aldeko botoa. Irurita-Lekarozko Maite eta Idoia Danboriena Olaetxearena da. 3.000 euro hartuko dituzte.

1.500 euroko hirugarren saria, azkenik, *Stororget* proiektuarentzat izan da. Errioxako Javier Garcia Neila eta Lizarrako Irantzu Saenz de Galdeano egina.

'LEHIAKETA ARRAKASTATSUA'

44 proiektu aurkezteak aurreikuspenak «gainditu» dituela adierazi dute Udaletik, eta «parte-hartze arrakastatsua» izan dela.

Aipatu epaimahaiako kideak honako hauek izan dira: Virginia Aleman, alkatea; Agustin Olabe (NaBai) eta M^a Carmen Iribarren (UPN) zinegotziak, hiru arkitektu ahokulari gisa (Silvia Barbarin udal arkitektoa, Eñen Munarriz Euskal Herriko Arkitektuen Elkargoak izendatua eta Eduardo Vicente Nafarroako Gobernuako ORVE bulegokoa), Blas Otazu udaleko hirigintza arloko abokatua eta M^a Jesus Muñoz udal idazkaria.

Erabakia hartzerakoan, herritarren iritzia %20ko balioa izan du eta gainerakoa epaimahaiarena izan da.

FLASH

Presoen argazkiak kendu dituzte

Audientzia Nazionalaren aginduz, Foru Poliziak Erratzuko Zubipunta eta Elizondoko Intza ostatuetan zeuden euskal presoen argazkiak erretiratu ditu uda honetan. Kaleko arrokekin jantziak agertu ziren poliziak bi ostatuetan.

Maliko langilea hilik Zigan

Sortzez Malikoa baina Orkoien bizi zen Issaga Sow 33 urteko langilea Zigan hil zen abuztuaren 14an, gidatzen ari zen Dunper makina 100 metroko malda batean iraulta. Munusketa alderdian etxe berri baterako lanetan ari zela gertatu zen ezbeharrak. Larrialdi Zerbitzuek 9:34an jaso zuten deia eta Oronoz-Mugairiko suhiltzaileak berehala joan ziren istripua gertatu den tokira, mediku, erizain eta anbulantzia batekin baina ezin izan zuten salbatu. Foru Poliziaren eskuetan gelditu zen ikerketa.

SOULE

hileta artea

Tfnoa. 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN

MENDIALDE

Jatetxea

Tfnoa. 948 453 060
N-121-B, 66 km
TAMAILUR

ZUGARRAMURDI

TURISMOA → UDAKO DATUEN BALANTZEA

22.500 bisitaritik goiti pasatu dira leizetik uztail eta abuztu honetan

Sorginen Museoak 7.150 bisitari hartu ditu udan

Koro eta Margari

Turistentzat erakargarria den herria da gurea, eskaintzen zaien aukera ere zabala delako: landa-etxeak, aterpe estreinatu berria, mendiak, Sorginen museoa eta leizeak... Joan diren uztail eta abuztua ere bisitari aunitzeko hilabeteak izan dira, eta batez ere, abuztua.

Sorginen Museoa utzitako datuen arabera, 2.644 lagun igaro ziren uztailen museotik, eta 4.506 lagun abuztuan.

Leizeko datuak ere hobeak dira, guztira 22.588 bisitari izan baitira uztail eta abuztu honetan. Uztailen, erraterako, 8.356 pertsona etorri ziren leizera eta abuztuan are gehiago: 14.232 bisitari guztira.

DATUA

14.232

BISITARI

igaro dira abuztu honetan Sorginen Leizetik, uztailen baino ia 6.000 lagun gehiago.

Durulaguntza

Nafarroako Gobernuak 55.680 euroko laguntza emanen dio Udalari, 1610. urtean egin dako sorgin ehizaren harira, 400. urteurreneko ikuskizuna prestatzeko.

Bestetako zozketa

Urtero bestetan egin den zozketan hauen izen dira saritutako zembakiak. Lehenbiziko saria 1.299 zembakiarentzat da (saski eder bat); bigarrena 0275 zembakiarentzat (Donostiako La Perla Tala-soterapiarako gonbidapena) eta hirugarrena 1.153arentzat (kutxa sorpresa).



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Sorginen Jokoa kaleratu du Bertizko Partzuergo Turistikoak

Baztan-Bidasoako txokoak, ohiturak eta ezaugarri bereziak ezagutarazteko helburuarekin, antzara jokuan oinarritutako Sorginen Jokoa kalean da. Kasu honetan, ordea, antzarak mugitu beharrean, hainbat koloretako sorginak mugitu behar dira. Jokuaren taulan Donamariako Jauregia, Sunbillako zubia, San Juan Xarreko iturriak, Urdazubiko monastegiko klaustroa eta Amaiurko gaztelua ageri dira, bertzeak bertze. Ezagutzen ez duenarentzat, jokorekin batera laukitxo bakoitzaren azalpenarekin liburuxka bat dator. Kaxa barreneko liburuxka euskaraz dago, baina salmenta puntuetan aparteko kosturik gabe gaztelaniaz eta frantsesezko bertsioak ere eska daitezke. Bertizko Turismo Partzuergoak egin duen mahai-jokoa uztailaren 29an aurkeztu zuten Sorginen Museoa. Dizeinua Begoña Durruty margolariarena da eta aurkezpen egunean, berarekin batera, Izaskun Goñi Partzuergoko kudeatzaileak eta Lazaro Dainziart zinegotziak parte hartu zuten. Ideia Partzuergoaren barnean proposatu zen, Hiruak Bat landa-etxe elkartetik, eta Partzuergoko teknikariek egin dute. Jokoa Bertizko Turismo Partzuergoaren bulegoan edo artisau erakusketa-dendan eskura daiteke. Informazio gehiagorako, deitu 948 592323 telefonora.



URDAZUBI



ARGAZKIA: UDALA

Urdazubiko errota eta bere ubidea

OSPAKIZUNAK → ERROTEN ELKARTEAREN EGUNA

Errotaren Eguna antolatu dute irailaren 13rako

Hitzaldiak, bisita gidatuak, azoka, erremonte partida... izanen dira

TTIPI-TTAPA

Erroten elkartearen eguna aurten Urdazubin egingen da, irailaren 13an, eta horren harira, egun osoko ekitaldiak prestatu dituzte Bertizko Turismo Partzuergoak eta Udalak.

Joan den urtean, Zubietan egin zen Errotaren Eguna, eta Patxiku Mitxelena alkateak, Santi Villaresi eman zion lekukoa, aurten hemen egiteko. Hala, 10:30ean artisau azokari emanen zaio hasiera. 11:00etan bisita gidatua egingen da museoan, errotan eta herrian barna. 12:30ean Larrate enpresak Azkar

mendiko gazteluan egin dituen indusketa lanen inguruan *Azkar, Nafarroako Erreinuaren defentsaren barne* hitzaldia eskainiko du. 13:30ean antolatzaileek lekukoa bertze herri bati pasako diote. Hartara, hurrengo urtean herri horretan egingen da Errotaren Eguna.

Eguerdian, 14:30ean herri bazkaria eta 17:00etan bisita gidatua Azkar gaztelura. Ekitaldiei akabera emateko, 18:00etan Nafarroako Erremonte Txapelketa-partida jokatu da: Uterga eta Lizaso, Iñigo Lekunberri eta Etxeberria III.aren kontra.

AZKAR GAZTELUA

Errotaren Egunaren barne, Azkar gazteluan egin diren indusketa lanen inguruan hitzaldia izanen da, 12:30ean.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Azkar mendiko gazteluan indusketa lanak

Uda mugitua izan da Azkar mendian dagoen gazteluaren inguruan, indusketak lanak egiten aritu baitira. Gaztelu honen inguruko dokumentazio aunitzik ez zegoelako ekin zion lanari Larrate enpresak eta uztailaren 15ean hasita indusketa arkeologikoak egiten ibili da udan. Aipatu taldeak utzitako informazioaren arabera, artxiboko dokumentu batzuetan, 1239an Teobaldo I.a Nafarroako Erregeak gaztelua monasterioaren esku utzi zuela ageri da eta urte batzuk beranduago, 1244an, Gaskoniako seneskala eta Ingalaterrako erregea Enrike III.aren konfidantzazko gizona zen Nicolas de Meulesen aginduetara zeuden soldaduek gotorleku hau suntsitu zutela. Hala, Lapurdiko mugan gerra piztu eta nafarrekin Baiona hartu zuten. Horrez gain, sorginekin lotutako kondairaren bat ere ba omen da. Josepha de Sokoa sorginak eta bere ahizpek lehenbizikoaren sernargaia gazteluan giltzapetu zutenen aurkako mendeku gisa, gaztelua erre egin zuten. Orain, bada, egindako ikerketa historiko-arkeologikoaren inguruko azalpenak emateko tenorea ailegatu da. Abuztuaren 1ean *Urdazubi itsasorako bi-deetan* izeneko hitzaldia eskaini zuten eta orain, irailaren 13an, igandearekin, egindako ikerketaren azalpenak emanen ditu Larratek herrian.



UTZITAKO
ARGAZKIA

Onddoa gosaltzeko

Dakitenek oraindik ondo aunitzik ez dela atera diote, sobera idor daudelako bazterrak, baina Severo Galarregi Gortarik bat behintzat bereganatu du, eta ez ttikia, gainera. Argazkian ageri den kilo bat eta erdiko ondoko hori abuztuaren 10ean topatu zuen Galarregik, baita ederki aprobetxatu ere. Bortz laguneko taldean ederki gosaltu baitzuten Montxo ostatuan ondoko janean. Seve-rorekin batera, Txomin, Sansin, Kupe-la eta Montxo elkartu ziren gosaltzeko.

Iñaki Alzueta margoak

Pintura dekoratiboa eta industrialeko • Oinokorren: irudiak, irudiak, irudiak
Fotografiak • Berridazkiriak
Luhaketa eta berridazkiriak • Pintura
Herri eta egunezko irudiak irudiak irudiak

Tel.: 609 862 417 • Iru-ttiki etxea • Landibar Auzoa • 31711 URDZUBI
ginturas.alzueta@yahoo.es

ARMUA JATETXEA

1.942 599 131
Eguzkimenaren auzoa, 3. era
URDZUBI

ZAGVA

EHIZA ETA ARRANTZA

Herriko elkarlanean, plaza 2. Elizondo
944953084 944953087

SARA

BESTAK → BURUILAREN 12TIK 16RA

Igande arratsean Anje Duhalderen kontzertua

Astelehen
arratsaldean
Artzain Zakur
Lehiaketa
izanen da

LARUNBATA 12

17:00etan Sara Korrika, 12 kilometroko lasterkaldia. **23:00etan** LEHENDAKARIS MUERTOS taldearen kontzertua. **00:00etan** dantzaldia SAMAIN taldearekin. **Gau guzian** Iparraldeko gaiteroak eta Iza-di txaranga karrikak animatzen ariko dira.

IGANDEA 13

10:00etan Meza Nagusia Urruñarrak klikarekin. **Ondotik** gaiteroak itzulian itzuli Danborrada Mariñelak-ekin. **10:30ean** luzean errebotean, Luzaz Gazte (Donibane Lohizune) Azkaindarrak bat (Azkaine) taldearen

aurka. **16:30ean** gaiteroak, joaldunak eta aha-te jokoak. **Ondotik** herri kirolak. **19:00etan** aperitifa Sarako kantariekin. **22:00etan** ANJE DUHALDERen kontzertua. **23:30ean** MIKELHATS taldearekin dantzaldia. **00:00etan** suzko zezena. Txarangaitak karrikak animatuko ditu.

ASTELEHENA 14

Goizean itzulian itzuli gaitero eta txistulariekin. **10:30ean** luzean errebotean, partidak. **13:30ean** zikiro jatea Olhain Ikastolak antolatuta. **16:30ean** Artzain Zakur Lehiaketa JM Jauregiren landan. **17:00etan** esku huska trinketea: lehen finalerdia: Sorhout-Dermi/ Waltary-Jeannots; bigarren finalerdia Alfaro-De Ezkurra/Bielle-Harizmendi. **18:30ean** euskal dantzak Zazpiak Bat taldearekin. **20:00etan** aperitifa trikitilarietara. **22:00etan** kantaldia IZARRAK taldearekin.



ARGAZKIAK: IDOIA ERRANDONEA

Gisa guztietako ekitaldiekin gozatzeko aukera izanen da aurtengo bestetan.

23:00etan dantzaldia ENTZUN taldearekin. **Gau guzian** Los Incansables txaranga karrikak animatuko ditu.

ASTEARTEA 15

